



Azpiegitura erraldoiak

Dirutza publikoa
alferrikako
proiektuetarako

Joxemi Zumalabe Fundazioa

Garai berrietara
moldatu nahian

Udaberri arabiarra arteetan

Mendebaldeko
lilura interesatua

Jaione Arregi interpretea


«Jatorrizko
diskurtsoa txarra
bada, apaindu
behar duzu?»

Unibol

Kitxuarrentzako
unibertsitatea
Bolivian

Net Hurbil

Noiz erasoko du
Israelek Iran?



Jose Mari Sagardui 'Gatza'

«Kartzelan zutik irauten
duzun egun bakoitzak euren
porrota areagotzen du»

Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

Anima zaitez zure herrian antolatza!

Doako proiektua da


☎ 943 37 15 45 · sustapena@argia.com

Dagoeneko proiektuarekin bat egin duten elkarteak:

- Añorga Kultur eta Kirol Elkartea
- Arrasateko AED elkartea
- Atarrabiako Karrikaluze Euskaldunon Elkartea
- Azpeitiko Sanagustin Kulturgunea
- Bilboko Kabia Kultur Elkargunea
- Bilboko Kafe Antzokia
- Derioko Kultur Bizirik Elkartea

- Donostiako Egia Bizirik Elkartea
- Gabiriako Kultur Etxea
- Getaiko Gaztetxea
- Goierriko Goiztiri AEK Euskaltegia
- Hernaniko Zumitza Taberna
- Lasarteko Jaldi Kafe Antzokia
- Laudioko Gaztetxea
- Lazkaoko Maizpide Barnetegia
- Leitzako Atekabeltz Gaztetxea
- Lekeitioko Kultur Etxea
- Lemoako Elizondo Kultur Gunea
- Lezoko Kultur Aretoa

- Ordiziako Gaztetxea
- Santurtziko Mamariga Kultur Etxea
- Sestaoko Udal Liburutegia
- Ugaoko Dorrea Elkartea
- Urduñako Alhondiga
- Urkabustaitzeko Izarra Kultur Etxea
- Urretxu-Zumarragako Gaztelekua
- Usurbilgo Sutegi Kultur Etxea
- Zarauzko Sanz Enea Kultur Etxea
- Zestoako Kultur Etxea
- Zornotzako Barnetegia
- Zumaiako Gaztetxea



Otsailean ikusgai

Lucio


**SARRERA
doan**

* Bertaratuentzat eskaintza bereziak ARGIAren eskutik

Prentsako izenburuetan "lapur ona" edo "Azeri euskalduna" deitu zioten. Garai hartako 3.000 milioiko iruzurra egin zion First National Bank (orain Citibank) etxeari, dirua berak sinesten zuen kausetan inbertitzeko. Lucio Urtubia, Cascantekoa (Nafarroa).

Datozen emanaldiak

- Sahara marathon
- Haizea eta sustraiak
- Sagarren denbora





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguera



• **NON ZER** •

2012ko otsailaren 12a, 2.310. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Juan Ignacio Perez Iglesias:** «Ez nuen jakin EHU gobernatzen». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Azpiegitura erraldoiak.** Diru publikoa irensten duten zuloak. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Jose Mari Sagardui 'Gatza':** «Kalean birgizarteratzen da, ez kartzelan». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Unibol.** Boliviako indigenek badute beraien unibertsitatea. IRATI SARASUA ARABOOLAZA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** *Sálhame* pixka bat. BEÑAT SARASOLA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21
- **Le Havre**, film zoragarria. IÑAKI ZUBELDIA / 22
- **Txandan** Isil-isilik. JOXERRA GARZIA / 22
- **Erositako prezioan.** DABID ANAUT / 23
- **Hiruko txikian** UPN-PP. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Sagutxo batzuekin. MIREN AMURIZA / 24

Erdiko kaiera

- **Udaberri arabiarra**, loraldi kulturala? GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Antzerkia.** Sortzaileak espazioa kudeatzen. MYRIAM GARZIA / 29
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** UNAI BREA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Joxemi Zumalabe Fundazioa.** Sormen kolektiboa garatzeko lanean. MIKEL ASURMENDI / 39
- **Jaione Arregi, interpretea Europar Batasunean:** «Zabaltzen ari den iritzia da hizkuntza aniztasuna ez dela batere pragmatikoa». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 43
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Noiz erasoko dion Israelek Irani? Duela bi urte. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Gazteluak.** SANTI LEONE / 50



“Ez nuen jakin EHU gobernatzeko”

Juan Ignacio Perez Iglesias

Baikortasuna, apaltasuna, tolerantzia,
eszeptikotasuna.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Zientziaren balio nagusiak omen. Gure gaurko gizartearenak bezalaxe.

Oraina baloratzea ez da erraza; hemendik 25 urtera ez dakit zer esango duten, baina balio horiei dagokienez, egungo gizartea ez da duela 50 urtekoa baino txarragoa.

Ikertzea ona da, eta beharrezkoa. Zertarako baina?

Unibertsoa, natura eta gizakia bera hobeto ezagutzeko. Ezagutzea da ikertzearen egiazko helburua edo helburu nagusia.

“Ezagutza boterea da”, esan zuen Baconek; baina botereak kontrolatzen du ezagutza.

Ezagutza eta boterearen arteko harremanak korapilatsuak izan dira beti, baina gero eta askeagoa da ezagutza. Eta munduan askatasunak atzera egiten ez badu, gero eta askeagoa izango da.

Eszeptikoa zaitugu. Badira eszeptikoekiko eszeptiko direnak ere.

Ez da harritzekoa, eszeptiko gisa agertzen diren batzuek eszeptikotasunaren dogmatismoa agertzen baitute.

Eszeptizismoa ez da dogmatismoa, beraz.

Definizioz eszeptizismoa ezin izan daiteke dogmatikoa, baina gauza bat da balioa eta beste bat, oso bestelakoa, balio horren defen- datzaile zenbaiten egiazko izaera.

Baina maila berean daude mamuetan sinestea eta transgenikoen aurka egotea?

Ez daude maila berean, transgenikoen aurka egoteko argudioak eman daitezkeelako. Argudioak zuzenak ala okerrak izan daitezke, baina hori beste gauza bat da.

Zure kasuan, biologiako ezagutzek lagunduko zizuten EHU hobeki gobernatzeko.

Biologiako ezagutzek sistema konplexuak ulertzen lagundu didate; eta uste dut EHU ulertzen dudala. Baina sistema bat ulertzeak ez dakar, berez, sistema hori gobernatzeko jakitea. Eta nik ez nuen jakin.

2008ko hauteskunde porrota, Bolognaren eta campus polizia-aren aurkako hautua izan zela esan zuten batzuek.

Hori pentsatzea, beste edozer pentsatzea bezala, zilegi da, eta doakoa. Ezetza eskatu zutenak, baina, CCOO eta PSEren inguruko katedradunak izan ziren. Atera kontuak!

Gradu titulu guztiak euskaraz eskaini behar omen ziren, iazko.

Ez dut gogoratzen, baina hala badiozu hala izango da. Oker ez banago denak edo ia denak eskaintzen dira euskaraz.

Herrialde onenen baloreak omen ditugu, baina unibertsitate publikoa ez dago onenen artean.

Esango nuke, unibertsitate eta ikerketan, Espainia bezain kontser- badorea eta atzerakoia dela Euska- di. Hortaz, nola egongo dira bere unibertsitateak onenen artean? ■



Azpiegitura erraldoiak

Diru publikoa irensten duten zuloak

Hauteskunde garaietan boto-emaileak harrapatzeko amu gisa erabiltzen dituzte politikariek; aulkian iraun nahi duten kargu publikoek, berriz, ondo egindako gestioaren eredu modura aurkezten dituzte. Egia da boto batzuk erakartzeko balio dutela, baina gestio onarena zalantzazkoa da. Euskal Herriko azpiegitura (edo proiektu) asko zulo beltz bilakatu dira edo horretarako bidean dira, eta gero eta ahots gehiagok dio haien planifikazioa egitean herritarren interesa dela kontuan hartzen den azkena... hartzen baldin bada.

UNAI BREA



CADE

Azaroaren 12an Parisen egindako manifestazioko irudia. Nantesko aireportua zabaltzearen aurkako mobilizazioa zen, baina Frantziako Estatu osoko eta beste herrialde batzuetako ordezkariak bildu zirelarik, beste hainbat azpiegituraren aurkako aldarri ere bilakatu zen. Ezertarako balio ez duten azpiegituren aurkakoa, pankartetako batean irakur dezakegunez. Euskal Herritik joandakoek Lapurdin AHT egiteko asmoa salatu zuten.

Ordainsari kabinako langilearen bakardadea

BILBO ETA TXORIERRIKO bailara lotzen dituzten Artxandako tunelen kasua paradigmaticoa da: 106 milioi euro kostatu zuten mendia zulatzeak lanak, baina diru hori, Foru Aldundiaren —eta beraz bizkaitarren— patriatik irten beharrean, tunelen ustiapenez arduratu behar zen enpresarenetik ateratzekoa zen —kontuan hartu behar da peajea ordaindu behar dela tunelak erabiltzeagatik—. “Eraikuntzaren arriskua enpresak dauka”, “lan hau ez da Aldundiarena”, esan zuen bere garaian Joxe Felix Basozabal Herri-lan diputatuak.

2002an izan zen hori. Urtez urte ikusi zen bidaiari kopuruaren aurreikuspenak ez zirela inondik inora beteko, gidarientzat pizgarriak jarri arren. 2010ean, azkenik, Túneles de Artxanda S.A. enpresak akordioa egin zuen Diputazioarekin, hasiera batean 50 urtekoa izan behar zen kontzesioa bertan behera uzteko. Orduan ikusi zen benetan arriskurik gabeko operazioa enpresarena zela. Ordainsarien ustiapen eskasak eragindako galerengatik 61 milioi euroko zorra zeukan kitatzeko, hasierako inbertsioa egiteko eskatutako kredituei zegokiena. Baina kontzesioa bertan behera uzteko kontratuak kalte-ordain oparoa eman zion Túneles de Artxandari, zortzi urtez egindako ustiapenaren truk: 62,5 milioi. Hortik enpresak daukan zorra kendu behar

zen, baina azkenean 1,4 milioiko “ordainsaria” jaso zuen, eta zorra ordaintzeaz libratu. Zama hori Aldundiak hartu zuen bere gain, 2010etik tunela kudeatzeak eragindako gastuez aparte. Momentuz, ez da agertu lan hori hartu nahi duen enpresarik.

Aurrekari horrek azterna batzuk eman ditzake berriki irekitako Supersur delakoaren etorkizunaz. Artxandako tunelen kasuan, hasierako aurreikuspenek zioten egunero 36.000 ibilgailu igaroko zirela; batez beste, 15.000 dira. Supersurren, berriaz, ustezko 14.000 auto eta 9.000 kamioiak, oraingoz, 10.000 eta 4.000 besterik ez dira, hurrenez hurren. Kamioiek, bereziki, ihes egiten diote bertako peajea ordaintzeari, Aldundiak prezioetan beherapena agindu dien arren; izan ere, baliteke azkenik Europar Batzordeak beherapen hori gauzatzeko baimena ukatzea. Momentuz, zuhur jokatu nahiago dute garraio-enpresek, eta beren gidariei esan diete betiko bideetatik joateko. Supersurra egiteak 900 milioiko gastua eragin zion Aldundiari.



ARGAZKI PRESS

“KRISI EKONOMIKOA egon arren beharrezkoa da herri lanetan inbertitzen jarraitzea, inbertsio horrek, aktibitate ekonomikoa eta enplegua eratzetaz gain, etorkizun hurbilean lehiakorragoak izaten lagunduko digulako”. Hitz horiekin, Jose Luis Bilbaok, handik ordu gutxira Bizkaiko ahaldun nagusi izendatua izango zenak, azpiegitura-lanen defentsa egin zuen iazko ekainaren 28ko inbestidura hitzaldian. Zehazki, Bizkaian honezkero eraikita dauden edo eraikitzeke asmoa dagoen zenbait errepederen beharra justifikatzen ari zen artean EAJko hautagaia zena.

Krisiaren eta errepedeen arteko lotura lehenagotik eginda zeukan Jose Luis Bilbaok. 2008ko ekainean, gerora etorri zen atzeraldi ekonomikoaren lehen zantzuak igartzen hasiak zirela, sei ardatz erradialen eraikuntza iragarri zuen ahaldun nagusiak; Bizkaiko ekonomia suspertzeko neurri modura aurkeztu zuen proiektua. Azkenean, krisia indartsuagoa izan da Bilbaoren asmoak baino, eta berriki, sei ardatz haietako hiruren lanak momentuz, eta “garai hobeen zain”, bertan

behera geratuko direla adierazi du Bizkaiko Foru Aldundiak.

Azpiegiturak krisiari aurre egiteko, horra Bilbaoren logika. Beste batzuen ustez, aldiz, krisiaren arrazoietakoa bat azpiegiturretan egindako buru eta hankarik gabeko gastua da. Ezin horri inbertsio deitu. Europa osoan bezala, diru publikoa mokadu handitan jaten ari diren azpiegituren adibide ugari dugu Euskal Herrian. Milioika euro erabiltzen dira haiek eraikitzen, baina gero negozioa ez da uste bezain ongi ateratzen, edo agerian geratzen da azpiegitura hori ez zela hain beharrezkoa —gutxitan izaten da hori sorpresa bat, bide batez esateko— eta baliabideak erruz xahutu

BEC, diru publiko irensele aseezina

BILBAO EXHIBITION CENTER, Barakaldon egonagatik Bilbo berriaren ikurretako bat bihurtu den eraikina, zenbaki gorrietan ditu diru kontuak. Ireki zutenetik galerak izan ditu ia urtero, eta Bizkaiko Foru Aldundia-ri eta Eusko Jaurlaritzari egokitu zaie zuloa estaltzea.

2004tik pilatutako ustiapenaren defizita 35 milioi euroraino iritsi da. Kopuru hori, oso-osorik, diru publikoarekin ordaindu da. Baina beldurgarriagoak dira beste zifra batzuk. Eraikuntza-lanetarako eskatutako kredituak itzultzeko komerkiak ditu BECek, eta hala, Aldundiak eta Jaurlaritzak, gutxi gorabehera erdibana, 286 milioi euro ordaindu behar izan dituzte honezkero, bankuekiko zorrari aurre egitearren. Oraindik, baina, beste 342 milioi daude ordaintzeke.

Diru publikoarekin ordaindu denaren eta ordaintzeke dagoenaren batura 663 milioi eurokoa da, Gipuzkoako Aldundiak 2012rako daukan aurrekontuaren adinako kopurua. Eta gora doa.



Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak egoerari aurre egiteko plan estrategikoa garatzeko exijitu dio Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaladun nagusiari. Besteak beste, ohiko funtzionamenduari dagozkion gastuak murrizteko eskatu diote, gehiegizkoak direlakoan. Hala ez egitekotan, Jaurlaritzak BECen parte izaten jarraitzeari utz diezaiokeela gaineratu du Industria Sailak.

Bilboko Erakustazoka desagertu eta gero, Makina Erremintaren Azoka eta Ferroforma, azoka esanguratsu bi, mantentzeko sortu zen BEC. Horiek bai, irabaziak uzten dituzte, baina entitateak ez du lortu bitarteetan mozkinak eratzeko adinako okupazioa edukitzea. Idom ingeniaritzari eskatutako txosten batek, 2006an ezagutarazi zenak, ohartarazten zuen azoka areto handiek aurreantzean izango zituzten arazoak. Ez zebiltzan oker.

behar direla hura mantentzeko... Azkenean diru publikoz estali behar da zuloa. Hala ere, proiektu berriak aurkeztu dira etengabe, administrazioaren maila guztietan, erkidego edo erregioetatik udaletara, dirua barra-barra darabilten EAEko diputazioak ahaztu barik.

Fededun asko biltzen dituen pentsaera

“Azpiegiturak mitoa dira”, dio Iñaki Barcena Ekologistak Martxaneko kideak. “Logika arrazionala erabiliz gero, haietako askok ez dute zentzurik; esaterako, logikak dio Euskal Herriak behar duen trena ez dela AHT”. Haatik, azpiegituren inguruan erakitako mitologia gailentzen zaio logikari, Barcenaren ustez; hainbeste, non ohitura bihurtu den herri-lan handien inaugurazioa botoak erakartzeko erabiltzea. “Badago kontsentsu politiko-instituzionala, eta batzuetan herritarrena ere bai, gauzak egiteko modu hori ondo dagoela esateko”. Azpiegiturek hazkundeak dakarte, eta hazkundeak ona da; kapitalismoaren ekuazio sinplista horri aurre egitea zaila dela dio ekologista beterranoak —“nolatan zaude errepideak egitearen kontra? Nolatan zaude mugikortasunaren kontra?”—, baina hala ere gero eta gehiago dira eredu

“Parisen azaroan egin manifestazioaren galdera holako azpiegiturak gelditzea zen, zeren eta egitasmoak zenbaki faltsuen gainetik eginak dira. Lege bat bezala da hori”

PANTXO TEILLER, CADE

horren aurkako ahotsak. Hazkunde ekonomikoa geldiarazi duen krisiaren laguntza izan dute ahots horiek, edo agian alderantziz, krisiak zenbait miseria agerian utzi izanak suspertu ditu; kontua da mitoaren kontrakoak inoiz baino gehiago ari direla nabarmentzen.

Esandakoaren kasu esanguratsua dago Gipuzkoan, Aldundian zein udal gehienetan Bilduk boterea bereganatu izanak ahalbidetua hein handi batean. Iragan berri den urtarrian, herri mugimenduko dozena erdi inguru taldek, gehienak azpiegitura zehatz bati oldartzeko sortutakoak, mozioa aurkeztu zuten herrialdeko hainbat udaletan, Gipuzkoan dauden azpiegitura handien proiektuak geldiarazi eta horiei buruzko eztabaida sozial zabala abiatu dadin eskatzeko. Halaber, eskari hori bera egiteko otsailaren 4an Donostian egindako manifestazioarekin bat egitea zekarren mozioari baiezkota emateak. Hamasei udalerritan eztabaidatua izan zen, eta gutxienez hamabitan onartua (hiruren datuak ez ditugu eskuratu).

Ezertarako balio ez duten azpiegiturak

Iazko azaroaren 12an ere manifestazioa egin zen azpiegituren aurka, baina Euskal Herri

● Azpiegitura erraldoiak

urrun, Parisen. Deialdiaren arrazoi nagusia Nanteseako aireportuaren zabalkundearen aurka protesta egitea zen, baina elkarretartzeak Frantziako Estatu osoko jendeak bildu zituen, hala nola Alemania, Italia eta Europako beste herrialde batzuetakoak, eta balio izan zuen tokian tokiko arazoak agerian uzteko. Azken beltzean, ezertarako balio ez duten azpiegituren aurkako aldarri bihurtu zen manifestazioa. Ipar Euskal Herritik joandako ordezkariaren pankartetan, AHTaren aurkako leloak irakur zitezkeen.

“Holako azpiegiturak gelditzea zen Pariseko manifestazioko galdera”, diosku Pantxo Tellier CADE elkarte ekologistako kideak, “zeren eta egitasmoak zenbaki faltasuen gainetik eginak dira. Lege bat bezala da hori, herrialde guztietan ikusten da hala dela”. Ez da erraza trafiko datuak kontrolatzea, dio Tellierrek, baina egin izan denetan ikusi da AHTa justifikatzeko erabiltzen diren kopuruak ez datozela errealtatearekin bat, haren aburuz: “Guk dakigula, hemen Euskal Herrian tokiko trenbideek nahiko ahalak dituzte alde batetik eta bertzetik pasako diren tren guztiak errezibitzeko, baita Euskal Y delakoa eraikiz geroztik ere”.

Azpiegituren politikak bere horretan irauteko arrazoi bakarra ez da, noski, Iñaki Barcenak aipatutako mitologia. Batzuen interesen arabera izaten da proiektu handien dantza, Tellierrek gogorarazi duenez. “Ekonomiako inguruaren aldeko jendeek gauza horiek onartzen dituzte, eta ez dira ardurartzen zifrak zuzenak diren ala ez; badakite hortik dirua aterako dela eta hori zaie inpor-



Hondarribiko
aireportua.

tanteena, ez gizartearen hobetzea”. CADEk helarazi dizkigun zenbait daturen artean, honakoak erakusten du ondoen Tellierrek adierazitakoa: Tours-Bordele AHT linearen kostua 7.800 milioi eurotan estimatzen da –hastapenean 4.200 izan behar zuten–; horren finantzazioaren %71 iturri publikotatik etorriko da, eta gainerako %29 Vinci enpresatik, baina harentzat izango da ustiapenaren etekin osoa.

Itzalpeko ordainsaria, egunero 180.000 euroko gastua Nafarroako Gobernuarentzat

AUTOBIDEETAKO ordainsaria pagatzeko ez da beti derrigorrezkoa kabina baten aldamenean gelditzea, ezta autoa gidatzea ere. Nafarroan, esaterako, Gobernuak itzalpeko ordainsarien bidez ordaintzen ditu hainbat azpiegitura. Sistemak honela funtzionatzen du: enpresa pribatu batek eraikitzen –eta finantzatzen– du autobidea, eta gobermuek, gero, hura erabiltzen duten ibilgailuen peajea ordaintzen diote enpresari.

Alde handiz, 2006tik irekita dagoen Bideko Autobidea sorrazten du gastu gehien: aurtun 40 milioi euro, itzalpeko ordainsarietan guztira ordaindu beharrekoaren %60. Kontua da kontzesioak irauten duen 30 urteetan ordaintzen jarraituko behar duela Gobernuak. 1.157 milioiko gastua, orotara. Autobidea egitea 390 milioi kostatu zitzaion enpresa ustiatzaileari.



Bideko Autobidea.

NAVARRA.ES

DANI BLANCO



Defizita duen aireportua handitzeko poltsa bete euro

MUNDUKO aireportu kontzentrazioak handienetakoa dugu Euskal Herrian: bost. Espero zitekeenez, horietatik bi besterik ez dira errentagarriak, Loiukoa eta Biarritzekoa. Foronda, Hondarribia eta Noain, berriz, Espainiako Estatuan bidaiari gutxien dituztenen artean daude, Espainiako AENA elkarte publikoak emandako datuen arabera.

Hala ere, Noingo aireportua berritzeko eta handitzeko 44 milioi euro erabili zituen Espainiako Sustapen Ministerioak, 2008 eta 2010 artean. Zabaltze-lan garrantzitsuena aparkalekuari zegokion: 118 auto gehiago kabitzen dira orain. Erakusmahai eta kontrol-dorre berriak egin zituzten, eta pista 200 metrotan luzatu. Berrikuntzekin ala gabe, Noainek bidaiariak galtzen jarraitu du. Zehatz esateko, %40 azken hiru urteetan.

Hondarribiko erabiltzaile kopurua, halaber, beherantz doa etengabe, nola beraren defizita gorantz, eta baliteke ixtea ere, AENA pribatizatuko balitz. Madrilgo Gobernu berriak, nolanahi, gelditu egin du oraingoz pribatizazio horri. Era berean, Gipuzkoako Aldundira Bildu iristeaz geroztik geldirik dago Hondarribiko pista handitzeko proiektua.

Espainiako AHTren adibidea

Bidasoaren bestaldean AHT da, halaber, herri mugimenduaren protesta gehien eragin duen azpiegitura proiektua. Eraikitzea oso garestia dela bagenekien, eta badaezpada EAEko aurrekontuetan horretarako sosak biziki handitu izanak gogorarazi digu berriki. Besterik da behin trenak martxan hasita zer gertatuko den jakitea. Horretarako, ona izan daiteke Espainiako Estatuari so egitea, hura baita munduko txapelduna biztanleko AHT kilometroetan –eta autobide kilometroetan, eta aireportuetan...–. Ondorioa argigarria da: linea guztiak defizitarioak dira. Eraikitzeaz aparte, haiek mantentzea oso garestia da –33.000 euro kilometroko eta urteko, BBVA Fundazioak 2005ean argitaratutako azterketa

batzen arabera–, eta hori errentagarri izateko sei milioi inguru bidaiari eraman behar dira urtean, 400 eta 700 kilometro bitarteko ibilbideetan. Hori guztia, trenen beraien mantenua kontuan hartu gabe.

Beste azpiegitura batzuen errentagarritasun falta ezagutzeko ez dugu estrapolazioetan ibili beharrik, begien bistan baititugu adibideak. Horieta batzuk nabarmendu ditugu erreportaje honetako orrialdeetan, denentzat lekurik ez ordea. Ezinezkoa litzateke, dozenaka udal azpiegituren lasterketa zoroan murgilduta daudelako besteak beste. Bitartean, Espainian PPK iragarri du ekaina baino lehenago delitua izango dela kargu publikoen gestio txarra. ■



iRuNazarra
TaBERNa • JaTeIXea



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadrabus.com

Jose Mari Sagardui ‘Gatza’ «Kalean birgizarteratzen da, ez kartzelan»

11.236 egun kartzelan.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Denon gaztaroa ez da historiaren puntu berarekin gurutzatzen.

Francoren garaiak ziren. Atxiloketak, fusilamenduak, militanteen heriotzak, ezkutuko batzarrak... Manifa guztiak ziren ilegalak: pankarta atera, oihu batzuk egin, eta polizia zeto-rranean ziztuan mendira. Aitak kontatzen zizkidan bere ume sasoiko pasadizoez oihartzuna zuten nigan. Hunkitu egiten nintzen hegazkinetatik jaurtitako bonbek zeruan distira eta Bizkargi edo Lemoako haitzetan triskantza egiten irudikatzean. Ohartzen zara gai horiek oso isilpekoak direla, etxean euskaraz egiteko ere hormek belarririk ez dutela ziurtatu behar duzula, gerra-osteko izua bizi-bizirik dagoela, eta zeure kabuz hausnartzen hasten zara, hariak lotzen, giro horri hozka egiten.

ETAn sartzea zekarren horrek?

Jendeak eskatzen zuena eta han-hemenka gudariak nola erortzen ziren ikusita, munduko urratsik logikoena zen niretzat. Militantzia eta militantea beti dira kontzienteak. Hor sartzen denak ederki daki zer jartzen duen jokoan. Ez duzu ezer asmatzen ibili beharrik, besteie gertatu zaiena daukazu zain. Etsaiak atxiloketak eta kondenak mediatizatzen dituen momentutik abisatuta zaude. Hori hala, ez erortzeko pausoak neurtuz egiten duzu bidea. Badakizu poliziak nahi bestetan sartu dezakeela hanka, nahikoa duela azertu bakarra zu harrapatzeko. Zu, aldiz, ia perfektiora behartuta zaude, hutsegite bat eta zureak egin du.

1980ko uztailaren 8an atxilotu zintuzten.

Oso latza izan zen, oso bortitza. Ohean nengoela, etxeko atea kulatakadaka txikitu zuten,

eta hortik aurrerakoa nahiago dut ez gogoratu. Behin atxiloketaren ondorioak irentsita, iraganean aparkatzea hobe. Etxetik Indautxuko komisariara eraman ninduten inkomunikatuta. Bakartuta zaude, ez dakizu non zauden, zer egun den, gaua ala egun argia den. Loa apurtzen dizute, umilazioak, makilakadak, eta hortik gora irudikatu dezakezun ankerkeria guztia. Izugarria da, kosta ahala kosta isildu nahi duzuna esateko gogoa pizten du torturak. Hain zaude infernu gorrian egin ez duzuna ere aitortuko zenukeela. Kartzelara iritsita, kide baten ahotik jakin nuen gure aita komisarian bueltaka ibili zela, “Animo Gatza!” garrasika. Uste dut aitak “Gatza” deitu didan aldi bakarrenetakoa dela.

Nola liteke gizakiak beste gizaki bat xehatzeko tortura edo kartzela bezalako tresnak asmatu izana?

Soldaduskan militar batek zioen mundu erdia beste erdia izorratzeko zegoela. Egia

Nortasun agiria

Zornotzan sortu zen 1958ko uztailaren 10ean. Espetxean 30 urte eta 9 hilabete pasata iazko apirilean berreskuratu zuen askatasuna; Europan kartzelan denbora gehien zeraman presoaren. Urte horietan denetik ezagutu du: sakabaketa, 14 kartzela desberdin, 190 gose-greba egun, ihesaldi saiakera, irteera dataren atzeratze gupidagabeak, jipoiak... Ez dira asko izango kartzelan kalean baino denbora gehiago igaro dutenak.





galanta. Zu beti ari zara zure hipotesiak egiten, euren logika harrapatzen saiatzen, zure kontra hartutako neurri eta zigorrekin nora makurtu nahi zaituzten kalkulatzeko, baina ankerkeria da dena, eta okerreña da ez dela ezer zabaltzen mundura, hormatzarren artean geratzen dela dena. Ez dezala kiratsak inor kontzientziatu, ez dadila inor asal-datu. Kartzelan, zuk ez dakizu sekula zer tokatuko zaizun. Etengabe ari dira zurekin frogak egiten, euren laborategiko sagua zara. Lagunekiko harremanak moztu dizkizute, bisean bisak senideen arakatzekin baldintzatzen. Gaur irainduko zaituzte, bihar eguzkia apenas sartzen den isolamenduko ziega estu-estura eramanez. Horrek sekulako tentsioa dakar, eta zu ekiditen saiatu arren, une batean gorpuzak gainez egiten dizu. Esaterako, pluritoa sortzen da, etengabeko hazkura sentsazio oso deserosoa. Badakizu nerbioen hondamenaren seinale dela, buelta emateko lasaitu behar duzula, baina hain da muturreko egoera... Egunean egunekoa bizitzera kondenatuta zaude. Ez dakizu bihar non egongo zaren. Euren esku zaude eta zure nortasuna mantentzen saiatu behar zara, trapez bat bezala aurrera eta atzera zarabiltzaten bitartean.

Nekeza da horren kontziente izan eta asumitzea?

Zenbait gauza mentalizatuta baizik ezin dira egin. Horixe da daukazuna, horixe da zauden mundua, eta biziraun nahi baduzu ez daukazu beste erremediorik. Oso konplikatu da zure burua egoki kokatzeko asmatzea, baina ekinaren ekinez, lortzen duzu behelaina uxatu eta jarraitu beharreko pentsaera

"Askotan galdetzen didate kartzela pelikuletan ageri den bezalakoa ote den. Nola izango da filmak bi ordu irauten badiu eta nire kondenak 30 urtetik gora?"

eta jokabidea ikustea. Ezinbestekoa da hori kartzelaren menpe ez erortzeko. Zuk zure bidea egin behar duzu, espero ez duzuna noiznahi gerta daitekeela onartuta, gaur lagun plantak egin dizkizun kartzelariak bihar jipoitu zaitzakeela jakinda. Ni beti saiatu naiz nire bidean zentratu eta morroiekin distantzia mantentzen. Pentsa, ni preso

nengoela jaiotako funtzionarioak ere tokatu zaizkit. Berak badaki, zuk badakizu, baina inork ez du ezer esaten. Espe-txezaintzat ez zara errespetagarria. Urtetan preso egon arren euren esanera belaukatu gabe jarraitzen duzu, beraz oker begiratzekoa zara, susmagarria, ez fidatzekoa. Izugarritzko amorrua ematen die

zurekin nahi dutena ez lortzeak. Egunero bota nahi zaituzte lurrera, baina zutik irauten duzun egun bakoitzak areagotzen du euren porrota. Hori frustrazio eta gorroto iturri izugarria da haietentzat. Sarri galdetu diot nire buruari, "andrearekin haserretu eta nirekin ordaintzen ari dira, ala berez dira holakoak?". Horregatik, ni nire bidean beti, inoren eskutik jan gabe, ahal bezain akats gutxi eginez, eta ondorio guztiak asumituta.

Beldurra ematen du.

Kartzelari ez diot beldurrik, ez dut uste izan behar zaionik, baina errespetu itzela bai. Kartzela horma handiz inguratutako zulo sakona da, eta presoaren egunerokoa da zulo horretan ez erortzeko etengabeko borroka. Borroka horretan gerta litekeen edozeri diot errespetua, edonoiz gerta baitaiteke edozer. Askotan galdetzen didate kartzela pelikuletan ageri den bezalakoa ote den. Nola izango da filmak bi ordu irauten badiu eta nire kondenak 30 urtetik gora? Oso zaila da bere larruan



probatu ez duenari kartzela zer den azaltzea. Munduko irudimen errealea duenak ere ez daki nola erreakzionatuko lukeen barruan gertatzen direnen aurrean. Kartzela oso suntsizailea da.

Horregatik egiten du presoak ihesarekin amets?

Askatasun egarria ase ezina da. Nahi gabe ere “hemendik izan liteke” edo “ordu hone-tan ez daukat morroirik gainea” bezalako detaileei erreparatzen diezu. Batzuetan, kalea ere ikusten duzu ziegatik eta “ezin du hain zaila izan!” errepikatzen diozu zure buruari. Kartzela zure bizitza jaten ari dela iruditzen zaizu, zure familia urrun dago, mugatuta zaude, eta ihes egitea ametsa baino gehiago bihurtzen da. Nik hamahiru urte neramatzan preso, nire bizitza bazihoala iruditzen zitzaidan, etengabe trena gal-tzen ari nintzela, ez nien nire printzipioei huts egin nahi, eta ihes egiteko aukera ikusi nuenean ez nuen bi aldiz pentsatu. Lehen horma gainditu nuen, bigarrena ez oster. Gorputza ubelduz beteta eta txikituta gera-tu zitzaidan, baina kolpe psikologikoa min-garriagoa izan zen. Bezperan, “bihar non egongo ote naiz?” galdetzen nion nire buruari, hormatzarren bestaldean egongo nintzela sinetsita nengoen, eta azkenean... Granadako espetxetik saiatu nintzen ihes egiten, eta biharamunean Caravanchelera eramanez ninduten inori ezer esan gabe. Ez zait sekula ahaztuko, zeruak eta lurra astindu ostean, gure ama han agertu zene-koa. Une hartan poz itzela eman zidan. Hor jabetzen zara jende bat zuegatik zer eta zen-bat egiteko gai den. Oztupo eta susto guz-tien gainetik beti zurekin. Ez zait sekula ahaztuko elkarri egin genion irribarre samur hura: “Pasatakoak pasata, oraindik bizirik eta gogor!”. Ez, ez naiz ahaleginaz damu-

tzen. Horri esker ezin dut esan buruan eduki baina ez nintzela saiatu.

Saiakera hark eman ez zizuna, denborak itzuli zizun. Iazko apirilaren 13an irten zinen Jaengo kartzelatik.

Laino batean nengoen. Jendea galdezka, emozio anabasa, dena berri, dena nobeda-de, denen arreta-gune... Ez da egun arrunt bat zure bizitzan. Halakoetan, saiatzen zara ahalik eta adierazpen zentzuzkoenak egiten, kanpokoei zuegatik espero dutena ematen, barrukoei euren eguna ere helduko dela sentiarazten, eta batez ere, aurrera egiten. Harrigarriak dira barruan egiten dituzun harremanak, oso lotura estuak egiten dituzu uneoro irauli litekeen monotonia horretan. Kanpoan desberdina da, jende gehiagorekin zaude, monotonia horrek beste zentzu bat du, harremanek beste esanahi eta intentsita-te bat dute. Kanpoan askoz garrantzi han-diagoa ematen zaie gauza materialei, ekono-miari. Barruan ez, barruan zuek daukazun onena ematen duzu, zure bizitza, zure urteak, eta hori ezin da ordaindu. Nik zorionez, preso nengoela, bidetxo bat jorra-



1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.



Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

AZKEN HITZAK

Itsasontzi baten...

"Kartzela ez da lineala. Surrealismoaren gorenera heldu liteke. Pentsa, ni Mallorcako espetxera itsasontzi bateko bodegan eraman ninduten. Han zoaz, itsaso erdian, eskuak lotuta, 'baina zer da hau?!' pentsatzen.

...Izar baten gainean...

"Behin grabaketa bat sartu zidaten, eta bertan 'laster, laster, laster, aitatxoren bila joango naiz izar baten gainean' kantatzen zuen gure alabak. Nire aldeko ekitaldi guztietan jartzen omen zuten abesti hori, eta nik ere hori entzuten nuen. Bertan egoteko modua zen niretzat, nire herriko jendea sentitzekoa".



...igeri.

"Kartzelan, irteterakoan igerian ikastearekin egiten nuen amets. Niretzat ezinezkoa zirudiena lortu dut. Beti irudimenean eta gogoan neukan apeta bete dut, eta sentsazio eta zirrarez beteriko mundu aske baten atea zabaldu. Aspalditik nintzen horren egarri, eta orain flotatzen dut... Kar, kar, kar!".

tu dut neska-laguna eta alabarekin, baina ordura arte ez nituen sekula kartzelatik kanpo besarkatu. Pasatakoak pasata, ederra da eurekin nire herrian egotea. Ni naiz azkena etxera iritsi dena, eta oraindik egokitze fasean gaude. Ez da samurra, baina gaitasun eta maitasunez ari gara pixkanaka bakoitza gure tokia aurkitzen. Niretzat aldaketa handia da. Barruan, zure bizitza propioa daukazu, zuretzat eskatzen duzu, zuretzat borrokatu. Hemen ez, hemen hirurontzat eskatu behar dituzu gauzak, hirurontzat egin, eta buruak asumitu behar du daborduko ez dagoela bakarrik, etxekoe-kin kontatu behar duela.

Ezinbestekoa da alboan norbait izatea mundu berri bati aurre egiteko?

Bestela nola kokatzen zara mundu horren aurrean? Non? Zelan egiten dituzu gauzak? Ziurtasuna behar duzu mugitzeko, zure ingurua ezagutzeko, informazioa jasotzeko, eta gauzen funtzionamendua asimilatzeke. Ni eraman nindutenean, ez zegoen gaurko azpi-egiturarik, gaurko etxe pilarik, ez zegoen ez Internetik ez mugikorrik, pezeta zen nagusi, eta mundua ez zebilen hain azkar. Esaterako, laguntzarik gabe, nola jakin nora joan behar den langabezia kobratzera? Nola jakin nola funtzionatzen duten bertako makinek? Ni orain 30 urte langabezia kobratzera joaten nintzen lekuan auskalo zer dagoen orain, eta orduan ez zegoen ezer informatizatuta. Hasieran, edozertarako behar duzu laguntza, baita kaletik ibiltzeko ere. Horretaz gain, oso garrantzitsua da lantoki bat edo

zure bizitza ardazteko planteamendu bat izatea. Horretan ari naiz, kokatzen, nire bizitzaren mapa berriz diseinatzen. Agintariek kartzelak birgizarteratzeko balio duela aldarrikatuko dute, baina kalean birgizarteratzen da, ez kartzelan. Kartzelak oso ondorio eskasak uzten ditu pertsonengan.

Zure irteeratik hona pauso esanguratsuak eman dira panorama politikoan. Nola bizi duzu momentua? Nola bizi zenituen negoziazio aroak kartzelan?

Kartzelan negoziazio aroak oso bereziak dira, ez dakizu zer hari ari diren mugitzen. Saiatzen zara egunkarien lerro artean irakurtzen, baina korapiloaren muinean ez zaude-
nez, hipotesiak baizik ez daukazu, eta gerora jakiten eta ulertzen dituzu gauzak. Kartzelan espektatibekin bizitzea oso arriskutsua da, eta guretzat, bigarren mailako kontua zen gure askatasuna. Herri honen gatazka konpontzean, gu borrokatzera eraman gintuzten arrazoiak desagertzean, gure askatasuna berez etorriko zela sinesten genuen. Beti eduki dut garbi zergatik nengoen preso, horregatik lehenbizi espetxera ekarri ninduten arrazoiei erreparatzen nien, eta gero nire buruari. Orain oso urrats esanguratsuak eman dira, presoan gaia lehentasuna izatera pasa da, baina helburuak berberak dira, ondo markatuta daude, eta etsaiak inork baino hobeto daki zeintzuk diren. Horregatik ez ditu eman nahi. Dena den, zaude ziur Euskal Herriaren eskubide guztiak lortu arte ez dugula etsiko. ■





Edukiz jantziko zaituen aldizkaria

Oparitu **argia** harpidetza

independentzia astero ikusten da

Boliviako indigenek badute beraien unibertsitatea

Kitxuentzako unibertsitatea sortu zuten 2008an Bolivian. Herrietako migrazioa gelditzea helburu, jendeak gogotsu hartu zuen proiektua. Ikasi ostean beraien herrietara itzuli eta bertan laguntzeko prestatu nahi dituzte ikasleak.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

HEZKUNTZA, LURRA ETA OSASUNA aldarrikapen iturri izan dira urte luzez Boliviako erakunde indigenentzat. Boliviako Unibertsitate Indigena sortzea herrialdeko elkarteek, herritarren eta gobernuaren aspaldiko asmoa zen. 2008ko abuztuan iritsi zen hainbeste desio zuten eguna, Boliviako presidente Evo Moralesek egindako dekretuaren bitartez

Unibol jaio zenean, Indigena Kitxuen Unibertsitatea. Proiektuaren helburu nagusiakoa ikasi ostean euren herrietara itzuli eta horietan lagunduko duten pertsonak prestatzea da. Hala, gaur egun komunitateetan ematen den migrazio mugimendua gelditu nahi da, eta eskualdeen ezaugarri ekonomikoak indartu.



DANI BLANCO

Euskal Herrian izan ziren Elizabeth Estrada eta Jaime Zambrana Boliviako Unibertsitate Indigenako kideak.



500 bat ikasle dituen Unibolen, praktikari garrantzi handia ematen diote. Goian, unibertsitateak utzitako hainbat irudi.

Unibertsitatea Chimoré herrian dago kokatua (Cochabamba izeneko departamentuan, Bolivia erdialdean) eta 500 ikasle inguru ditu. Oihanean, elikagaien industrian, agronomian eta arrantzan lan egiteko prestakuntza ematen zaie, eta hainbat titulazio eskaintzen dira, burututako urte kopuruaren arabera: unibertsitatea amaitutakoan, goi-tekniaria, lizentziatua edo ingeniaria, edo maisua izango da bertan ikasi duena.

Ekimena garrantzitsua da Boliviako herri eta nazio indigenentzat, orain arte goi-mailako ikasketak egiteko hautua izan ez duten ikasleentzat aukera paregabea delako. Elizabeth Estrada Unibol Unibertsitateko administrazio-finantzen zuzendariak azaldu digunez, “unibertsitatara joateak gastua eragiten du; herritik hirira joan behar izaten da jendea eta hainbatetan baliabide ekonomikoek ez dute horretarako aukera ematen”. Horri irtenbidea aurkitu dio Kitxuen Unibertsitateak, ikasleek herrialdeko elkartearen diru-laguntza jasotzen baitute. Unibertsitatea da, elkarteek emandako diru-laguntzaren bidez, ikasleen janaria, egonaldia eta prestakuntzarekin zerikusia duen guztia ordaintzen duena. Ondorioz, diru gutxi izan arren, goi-mailako ikasketek hartzeko aukera eskaintzen du proiektuak.

Ikasleek, irakasleek eta administrazioko langileek ekoizten dute koka-landarea, elkarlanean. Sortutako komunitatearen bidez azpimarratzen da kitxuen identitatea

Ikasleak barnetegi sistema batean egoten dira eta beraz, ikasgelez gain bertan dute beraien bizilekua. Hori da Unibertsitate Indigena Boliviako beste unibertsitateez desberdintzen duen ezaugarrietako bat. Elkarbizitza euskarri garrantzitsua da, elkarlanean ariko den komunitatea osatzea lortu nahi delako. Ordutegian zehaztuta dagoenez, une batzuetan ikasgelan arituko dira, eta

beste zenbaitetan aldiz lurreko lanetan, teorian ikasitakoa praktikan jartzeko xedez. Izan ere, unibertsitate produktiboa eratzea da helburu nagusia, eskolatan ikasitako ezaguerak gero errealitatean erabiltzeko baliagarriak izan daitezela. Horretarako, ikasketak bi zatitan daude banatuta: %40 eskola teorikoak dira eta %60 praktikoak.

Iristen diren une beretik funtzio bat ematen zaio ikasle bakoitzari. “Gauza bera egiten da irakasleekin eta administrazioko langileekin ere, denek egiten dugu lan elkarrekin, ama-lurrarekin harremana izateko betebeharrak dugu”, dio Estradak. Esaterako, ikasleek, irakasleek eta administrazioko langileek ekoizten dute koka-landarea, elkarlanean. Hortaz, komunitateko pertsona bakoitzak bere zereginak ditu batetik, eta produktiora eskaintutako orduak sartuko ditu bestetik. Azken finean, bai ikasleen eta bai irakasleen

**Unibertsitatea bera da,
elkartek emandako diru-
laguntzaren bidez, ikasleen
janaria, egonaldia eta
prestakuntzarekin zerikusia
duen guztia ordaintzen duena**

jarduna bi norabidetan zuzentzen da: ikasi eta irakatsi. Harremanetarako espazio pedagogikoak sortu dituzte unibertsitatean, ikasleen, irakasleen eta administrazioako langileen artean.

Identitate kulturala indartzearen alde

Unibertsitateak hainbat mugarri ditu, horietako bat da unibertsitateak jakintza eta kultur aniztasunari ematen dion garrantzia. Unibolen ahalegina da ikasleen artean kitxuen identitate kulturala indartzea. Unibertsitateko errektore Jaime Zambranaren hitzetan, elkarren arteko harremanaren eta sortutako komunitatearen bidez azpimarratzen da identitate hori, garrantzitsua baita ikasleak bere kultura eta hizkuntza landu eta indartzea. Jakintza modernoak ezagutza kitxuekin uztatu behar direla eta harremana izan behar dutela ere uste du errektoreak: “Jakintza indigenari alderdi akademikoan ere lekua egin nahi diogu proiektu honetan. Unibertsitatea bera hori da, jakintzen arteko elkarriketa”.

Irakasleak hautatzeko garaian ere, filosofia hori mantentzen dela begi-bistakoa da. Bi irakasle mota bereiz daitezke: batetik, titulazio akademikoak dutenak, eta bestetik, kitxua kulturen jakintsutzat hartzen dituztenak. Maila berean egiten dute lan, zibilizazioen arteko harremanean oinarritzen baita Unibolen proiektu pedagogikoa.

Hala ere, Estradak eta Zambranak kontatu digutenez, oraindik ez dituzte lortu hizkuntza alorrean finkaturiko helburuak eta lanean

**Ikasleak barnetegi sistema
batean egoten dira, ikasgelez
gain bertan dute beraien
bizilekua. Hori da Boliviako beste
unibertsitateez desberdintzen
duen ezaugarrietako bat**

dihardute alderdi hori sustatzeko. Irakasgai batzuk kitxua hizkuntzan diren arren, gehienak gazteleraz irakasten dira gaur egun. Arrazoia da zenbait irakasle ez dakiela kitxueraz hitz egiten. “Horretan ere ari gara lanean, irakasleek hizkuntza ikas dezatela eta beraien lana gure hizkuntzan egin dezatela baita asmoa”, dio Jaime Zambranak. Kitxuera Bolivian zabaldua dagoela adierazi dute unibertsitateko arduradunek, baina normalizazio bidean oraindik badela oztoporik.

Oinarri sendoa

2008tik hona egin dituzten aurrerapenak bi ildo nagusi jarraitu dituzte. Batetik, azpiegitura eratzeaz arduratu dira, unibertsitate fisikoa. Horrez gain, proiektu akademikoa finkatzea funtsezkoa izan da. Irakasle eta administrazio taldeak sortzen joan dira pixkanaka eta gaur egun, sendotu egin da gestio moldeak. “Egonkortze prozesu honetan, ezinbestekoa izan da erakundearen eta indigena elkarten parte-hartzea, beraien unibertsitatea dela badakite, beraiek direla protagonistak”, nabarmendu du errektoreak.

Etorkizunera begira, ez dira gutxi jarri dituzten erronkak, baina ebaluazio prozesua dute bidea zehazten joateko eta geroa ahalik eta ondoen prestatzeko. Herrialdeko buruzagiek adierazi dietenez, herritarrek aintzat hartzen dute beraien lana eta beharrezkotzat jotzen dute Unibol. Ikasteko, prestatzeko eta etorkizun oparoa izateko denek aukera berdinak izan ditzaten. ■



bardoak 2012

nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea

nafarroako bertsozale elkartea

haztutzailea

argia

LEHENENGO FASEA
URTARRILAREN 27tik OTSAILAREN 19ra
(17 SAIO)

BIGARREN FASEA
MARTXOAREN 2tik MARTXOAREN 18ra
(6 SAIO)

FINALA
MARTXOAREN 31n, LEITZAN
HIRU TALDE, BEDERATZI BERTSOLARI

Informazio osoa eta zurrerak


www.BARDOAK.com



argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.

TTAKUN (H)ERRENKA

Sálvame pixka bat

E

z sobera kezkatu Uxue, ez baita “esnobab” ttakun baten harira deitu didaten epite-
torik gogorrena.

Halere, ez pentsa, ez da hain erraza esnoba ez izatea. Behin batez Juan Carlos Fresnadillo-ren *Intruders* filma balekoa iruditut zitzaidala esatea otu zitzaidan eta txistuak, oihiak eta molde guztietako uhukaldiak jaso nituen. Birgaitze-plan gisara, Godard-en *Histoire(s) de cinéma* guztiak egon nintzen ikusten bi egunez loop moduan.

Ez dut batere gogorik Manuel Fragaz idazteko, ez dut uste Jose Luisek esan dituenetik landa gauza handirik esan dezakedanik, eta beraz, Uxueren hariari helduko diot.

Ez naiz ezertaz enteratzen. Badakit Marta del Castilloren kasua prentsa arrosa edo ezbeharren kazetaritzarekin lotzen dela, baina ez askoz gehiago. Ez zait batere interesatzen. Seguru batek baino gehiagok ez didala sinetsiko eta, berriz ere, esnobkeriatan ari naizela pentsatuko duela, baina egia da, ez da engainua. Daitort, izan nuen *Crónicas Marcianas* jarraitzen nuen garai bat, baina aspalditik bost axola zaizkit prentsa arrosa zein ezbehar hanpatuak. Akaso pertsona orok sentitzen omen dugun morborako behar hori, modu aski inkontzientean bada ere, euskal kultura munduko esamesa eta polemika txatxu etengabeekin aseko dut –Uxue Alberdik esan zuen gisara, “nork ez du behar *Sálvame* pixka bat”–, nahiz eta adiskide bati arrazoia eman behar diodan: aukeran nahiago originala, Marta del Castillo, alegia. Uxuek egindako konparazioa, haatik, ez da debaldekoa. Ez dakit zein kritikori irakurri nion Marcel Proust-en meritua *Denbora galduaren bilan*, besteak beste, esamesak literatura mailara goratzea izan zela. Direla Swann-en amodioak, direla Balbec-eko auzoen kontuak, liburuotako azaleko gaiak sarritan etxe-sailetako atari edo patioeta-

DANI BLANCO



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

ko txutxu-mutxuak baino ez direla finean. Jane Austen-nobeletan ere badago horrelako zerbait, betiere Austen-en begirada zorrotz eta ezin zoliagotik iragazia.

Ez pentsa, nire txutxu-mutxuekiko autismo honek ere bere ordainak ditu. Elkar gehiegi ezagutzen ez duten lagunarte horietako

batean egotea egokitu zitzaidan duela aste gutxi. Konfidantza falta dela eta, gai eta interes komun gehiegi edukiko ez genituelakoan, trikimailu tipikoa baliatu genuen kalaka nola edo hala mantentze aldera –badakizue, isiltasuna baino gauza bortitzagorik ez da–. Ea 2011ko albiste garrantzitsuenak zeintzuk iruditzen zitzaizkigun. Batek Gadafi aipatu zuen, besteak Osama bin Laden, beste batek ETArek amaiera, eta halaxe jarraitu genuen geroz eta konfidantza handiagoz. Halako batean gutako batek Marta del Castilloren epaia aipatu zuen urteko gertakari garrantzitsuenen artean. Hari begiratu eta barrezka hasi nintzen brometan botatako komentarioa zelakoan. Oker nengoen. Serio-serio begiratu ninduen: “Zergatik egiten duzu barre? Zerk egin dizu halako grazia?”. Isil-isilik geratu ginen guztiok, eulien hegaldiak entzun ziren, kilkerren hotsak ere bai. Zorionez ez nuen ikusi, baina geratu zitzaidan aurpegia ikustekoa izango zen. “Ehh, zera... ez nekien epai hori hain garrantzitsua zenik”. “Hain garrantzitsua?” galdetu zidan erabakitasunez. “Esaiezu hori Martaren gurasoei. Ikusi nahiko nuke hainbesteko grazia egingo ote zizukeen zure alabari halako zerbait gertatuko balitzai”. Zer erantzun daiteke halakoetan? “Zelako fribolitate!” gaineratu zuen. Uste dut barkatu herabe bat ahoskatzeko gauza izan nintzela. “Ume bat dirudizu, heldugabe bat”, hori esatea besterik ez zitzaion falta izan. ■



Halako batean gutako batek

Marta del Castilloren epaia aipatu zuen

urteko gertakari garrantzitsuenen artean.

Hari begiratu eta barrezka hasi nintzen

brometan botatako komentarioa zelakoan



Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Le Havre, film zoragarria

Film hau ikusi eta guztiz txundituta atera nintzen: izugarria da, ederra, bikaina, mundiala, sakona. Tristeia, hitsa eta iluna ematen du eta, barru-barruan, beren pertsonaien jarretan eta jokaeretan, oihaneko ostaje eder eta argitsua nabari da, solidaritatez, adiskidetasunez eta gizatasunez bete. Istorioak izugarritzko indarra du eta pertsonaiak ezin hobeto aukeratuta daude. Auzo baztertu bateko kaleetatik eta etxe txi-roenetatik hartu ditu horiek, txoko ilun eta zikinenak aukeratu ditu, baina denak argitasunez eta berotasunez bete ditu. Errealismo zikinen sailkapenean sar daiteke kontakizuna, baina aldi berean poesiaz eta sentimenduz bete sentitzen du ikusleak. Mutiko beltz emigrante bat eta Marcel Marx idazle buhame eta frakasatua, orain kaleko zapata garbitzaile dena, dira kontakizuneko protagonistak, baina auzo horretan bizi diren beste pertsonaiek ere indar eta esku-hartze handia dute: Marcelen emazteak berak, emakume tabernariak, gizonezko fruta saltzaileak, polizia inspektoreak... Pertsonaia honen anbiguotasuna oso ondo lortua dago, denbora guztian zapata garbitzailearen atzetik dabilela baitirudi hau delituren batean harrapatzeko asmotan, baina gauzak



DANI BLANCO

ez dira guztiz horrela... Izugarria da filmak mantentzen duen tentsioa hasieratik bukararaino.

Aki Kaurismäki itxaropenari atea irekita utzi nahi izan dio, pertsonaia baztertu hauek ia beti galtzaile suertatzen direlako bizitzan. Hemen, aldiz, auzoko pertsonaia ilun eta anker itxurako hauek bihotz baten eta sentimendu jator batzuen jabe direla erakutsiko dute, legeari eta ustezko zuzenbidezko estatuari aurre eginez eta atzapar horietatik aske ateratzeko itxaropena egon daitekeela aldarrikatuz. Harrigarria da gaizkileen giroko filma dirudien honek nola aska ditzakeen ikusleen bihotzetan sentimendurik finenak eta nobleenak, eta nola hori ez dagoen derrigorrez kurtsileriarekin eta bigunkeriarekin lotuta. Film hau ez baita ez kurtsilerian eta ez bigunkeria erortzen, eta azken uneraino mantentzen baitu suspentsea, tentsioa eta dena hankaz gora joango dela sinestarazten dizun sentsazioa.

Dudarik gabe, aurtengo Oskarra proposatzen dut film eder honentzat. Hain gauza gutxiarekin hainbesteko indar narratiborik lortzen ez dut sekula ikusi eta ez nukeen imajinatu ere egingo posible zenik. Gora Aki Kaurismäki! ■



Harrigarria da gaizkileen giroko filma dirudien honek nola aska ditzakeen ikusleen bihotzetan sentimendurik finenak, eta nola hori ez dagoen derrigorrez kurtsileriarekin lotuta

TXANDAN

Joxerra Garzia



Gustuko bidelagun izan dut beti musika: une etsien gozagarri eta une gozoen eutsigarri ezinbesteko. Gustura entzuten dut inorena ere, baina lagunekin kantuz aritzea da niretzat atseginarena goren.

Lanbideak gazteei begira jartzen nau, eta aitortu behar dut harrituta naukala askok musikarekin duten harremanak. Hor ikusten ditut, goizean goizetik, belarriak entzungailuz hornituta, musika entzun eta entzun, edonon daudela eta edozertan ari direla ere.

Isil-isilik

Teknologiak aukera hori ematen die, eta eurek muturreraino baliatzen dute. Egia esan, besteok ere beste horrenbeste egin izan dugu beti, garaian garaiko teknologiekin (telebista, autoa, eskuko telefonoa...): trasteak geure premietara egokitu beharrean, gu haien erritmora errenditu, geuretzat kaltean.

Hori aitortuta, hala ere, jakin nahi nuke zer sentitzen duten entzungailuak erantzi beste erremediorik ez duten apurretan, konturatzen ote diren, musikaren hilobi ere izan litekeen arren, musikaren sehaska dela batez ere isiltasuna. ■



Dalaid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Erositako prezioan

Arikeratxo bat: paper zuria hartu, eta bizpahiru minutuko tartean, honako galderari erantzun: Zergatik da onuragarria hizkuntza aniztasuna?

Pasa da idazteko tarte laburra. Zer moduz? Alde-aldeko argudioak isuri al zaizkio zure gogoari? Gustura gelditu al zara?

Egia esan, hizkuntza aniztasunaren aldeko jarrera duzulakoan egin dizut galdera, nahiz eta, jakina, bestela ere izan liteke. Baina hala baldin bada, eta zure jarrera aniztasunaren aldekoa baldin bada, gerta liteke arrazoi sendo eta sakonetan oinarritua egotea, edo gerta liteke sentimendu indartsu baina intuitibo samar baten inguruan eraikia izatea. Edo biak aldi berean gertatzea. Edo bietako batere ez, eta haizeak aisa eramanez lezakeen ideia ahul bat besterik ez izatea.

Izan ere, maiz gertatzen zaigu ideia indartsu baten aldeko izatea, eta, haren defentsa egitea egokitzen zaigunean, nondik jo ez dakigula gelditzea. Erositako prezioan saltzen ditugu sarritan ideiak, eta modu akritiko eta azaleko samarrean jaso duguna era berean saltzen dugu. “Erosleak” zorrotz eta estu hartzen gaituenean, ordea, orduan komeriak.

Eta akatsa edo gabezia, agian, ez dago ideia horretan, guregan baizik; zehazkiago,



Maiz gertatzen zaigu ideia
indartsu baten aldeko izatea,
eta, haren defentsa egitea
egokitzen zaigunean,
nondik jo ez
dakigula
gelditzea



ideiak gure egiteko eta onartzeko hainbatean dugun erraztasun handiegian. Zerbait pentsatzeko edo zerbaitetan “sinesteko” dugun erraztasun handiegian.

Idea jakin bat ona iruditzen bazaigu, indartsua, bidezkoa eta garrantzitsua dela iruditzen bazaigu, uste dut merezi duela astindu pare bat ematea, aurretik, atzetik, barrutik eta kanpotik begiratzea, eta, horren ondoren ere ontzat, indartsutzat eta garrantzitsutzat jotzen badugu, horren alde egin eta aurrera jotzea.

Hizkuntza aniztasunari eustea egoia eta mesedegarria dela intuizio hutsez sentitzea, konparaziora, nahikoa izan liteke norberarentzat, eta akaso baita beharrezkoa ere, baina ingurukoak eta ez hain ingurukoak horren onuraz ohartarazi nahi baditugu, gure intuizioaz eta sentsazio onaz haragoko zer edo zer eskaini beharko dugu, haiengan ere gutxienezko funtsa izanaren duten arrazoiak eta sentimenduak piztuko baditugu, eta ideia horrek behar duen ibilbidea egin eta gizartearen indarra hartuko badu. Badugu horretarako behar adina euskarria, nire ustez,

baina ez dugu pentsatu behar denontzat hain agerikoa eta bisi-takoa denik. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Franco ondorengo Fragaren Alianza Popular haren seme-alabek Nafarroan dute hazien-da, arbasoen herentzia. Gaztetan harantz egiten genuenean, bertako karlistekin izaten genituen eztabaida liskartsuenak, gu baino aiseago euskaraz ari ziren haiekin. Kosta egiten zitzaidan karlistak eta erreketak bereiztea PCren adarren artekoetakoak bezainbat. Berdin samarrak iruditzen bazitzaizkidan ere, beren artean sekulako herrak zizkioten elkarri, nahiz guri huskeriak irudi zituzten ezberdintasunak. Era berean, abertzaleen artean genituenak ez zituzten ulertzen, eta Nafarroa euskaldun-

UPN-PP

tzeko gure jukutria estrategikoei egozten zizkieten gure artekoak, helburu bereko antzerkilariak baikin. Ikastolak eta gau-

eskolak sortzen hasi ziren garaia ziren. Geroztik urtaroz dezent joan da, bertako euskaldunek ez dute amore eman, euskararen eremuak zabalagoa nahi du. Lodosa Sartagudako ikastolak bizi nahi eta larri. Gipuzkoako Foru Aldundiak tokatzen zaiona egin eta laguntzeko erabakia hartu du. Bikain. Egingo nuke gipuzkoarrak hein handian ados eta harro gaudela. Merezi genuen dugun aldundia, luzaz behar dugun hori. Ez ditzatela beren besoak erortzen utzi. ■



BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Sagutxo batzuekin



I

Gabonak oporrekin
lotu ohi ziren lehen,
orain ikasleontzat
ez da hala zeren
azterketa garaia
hor baita ondoren,
liburuak astintzen
eroki han-hemen
ba al dakigu gero
ikastea zer den?

III

Jakintsu izatea da
askoren helburu,
hori lortzeko berriz
daude mila modu.
Hitzen handitasunak
xarmatzen gaitu gu,
baina funtsezko gauzak
ez lan ez liburu
geu konturatu gabe
ikasten ditugu.

V

Azterketa sasoiko
nahaste-borrastea,
apunteak pilatu
eta irenstea.
Bata buruz ikasi
txukundu bestea
ondoren dena ahaztu
bai patu triste!
Horri deitzen al zaio
ondo ikastea?

II

Oinez ikastea da
ikasgai lehena,
gero hitz egin edo
idatzi hurrena.
Tresna bat jotzea ere
a zer zoramena!
Baina dena da lan bat
denboran barrena
pazientzia handiz
egin behar dena.

IV

Dakien horri entzun
hari galde gero
norbere esperientzia
ere hortxe bego.
Jakinmina guztion
gogoan balego,
eskola gabe ere
ia egunero
ikasiko genuke
nahi izan ezker.

VI

Ezintasun handia
sortzen da batengan
erantzunik ez bada
aurkitzen galderan.
Nahiz eta ez argitu
ikastea zer dan,
zer ikasia beti
daukagu aukeran;
jakinduria inoiz
ez dago soberan.



DOINUA: Haurtxo polit bat



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Udaberri arabiarra, loraldi kulturala?

Urtebete joan da herrialde arabiarretan matxinadak hasi zirenetik. “Udaberri arabiarra” deitu zion prentsak, baina 2011k aurrera joan ahala zimelak hartu ditu herri matxinada haietako asko. Goizegi izango da, ziurrenik, iraultza horiek ekarriko dituzten ondorioak zehazteko. Bat izan ezik: arabiar herrialdeetako arteek aspaldian ez bezalako arreta berenganatu dute Mendebaldeko hedabideetan.

GORKA BEREZIARTUA

MATXINADEN eraginez sorkuntza bizitu al da? Hala pentsa dezake edozein amaren alabak egunero prentsan, telebistan, irratan edo sarean ikus-entzundako informazioei kasu eginez gero. Adibide berri samar bat: “Udaberri arabiarra: nola kontatu iraultza artearen bidez” zioen *Diario de Navarra*n argitaratutako EFE agentziako albiste batek urtarilaren 24an. “Udaberri arabiarrek berehalako efektua eduki du arteetan, eta Kairon arraroa da

Nermine Hammam argazkilari egiptoarraren argazkia behean. Militarren irudiak eta koloreak uztartuz udaberri arabiarren metafora osatu du.

aste bat pasatzea zuzenean edo zeharka Egiptoko panorama berriari lotutako erakusketa bat inauguratu gabe”. Panorama berria sortu dela, ez da dudarik, Mubarakék ez baitu Egipto gobernatzen iaiztik. Baina komeni da egoera berri hori oraingoz junta militar batek gidatzen duela gogora ekartzea ere. Eta beraz galdetzea, ea agintean dauden uniformeek arteekin sentsibiltate berezia ote duten sorkuntza-olde hori bultzatzeko, edo, besterik





gabe, lehen bezainbeste sortzaile ote dagoen Egipton, baina lehen ez bezala herrialde aberatsek euren kazetari paraxutistak bidaltzen dituzten horien berri ematera.

Matxinadek, laguntzekotan, herrialde batzuetan pelikula, kanta edo liburu batzuk kontsumitzen lagundu dute, edozein erregimen aldaketak ordura arte nagusi izan den kulturgintza ofiziala pipiak egurra bezala jaten baitu. Zentsuratuta zeuden idazle eta zinemagile batzuen lanetara errazago iritsiko da publikoa orain; galbahea pasatzeko gauzak erdi-esan erdi-ezkutatu behar zituztenek ere, modu agerikoagoan adierazi ahalko dituzte euren iritziak hainbat herrialdetan. Eta zentsura gainditzearekin batera —edo zentsura gainditu behar izana amu gisa erabilita—, atzerrian arrakasta lortu duenik ere bada.

Hesham Issawi zuzendariaren historiak bil-tzen du egokien egoera hori: Egipton jaioa, 1990ean AEBetara joan zen antropologia ikas-tera, baina argazkilaritzarekin zeukan interesak apurka-apurka zinemagintza ikastera eraman zuen. 2000ko hamarkadan hainbat film labur egin ondoren, duela bi urte ekin zion bere lan ezagunena filmatzeari, *Cairo exit*. Gizon musulman baten eta emakume kristau kopto baten

**Matxinadek, laguntzekotan,
herrialde batzuetan pelikula, kanta
edo liburu batzuk kontsumitzen
lagundu dute, edozein erregimen
aldaketak ordura arte nagusi izan
den kulturgintza ofiziala
bartzertzen baitu**

arteko amodio istorioa kontatzen du, herrialdearen erretratu tristea eskaintzearekin batera. Mubaraken erregimenak debekatu egin zuen Egipton proiektatzea; handik kanpo eskaini zuenean ere, bere herrialdeko kritikariak gainean zituen: “Pelikula Dubaiko Film Festiba-

lean eskaini nuenean, 2010eko abenduan, kritikari egiptoarrek gaitzetsi ninduten herrialdearen irudi goibela eskaintzeagatik eta soluziorik ez aurkitzeagatik per-sonaien egoera sozial eta eko-nomikoari; kritikatu zuten per-sonaiaentzat soluzio bakarra Egiptotik alde egitea dela. Tira, nire erantzuna izan zen: ezin nuen irtenbiderik bilatu per-sonaiaentzat, ez zegoelako halakorik sistema basati horren pean”.

Kotizazioa gora

Paris, Frankfurt, Madril, Venezia edo Londresko erakustokiak ere izan dira “arteen udaberri arabiarra”-ren lekuko. Matxinadek begiak zabaldu dizkiete galerietako komisa-rioei: badira Mediterraneoaren beste aldean ere artista interesgarriak, hiriburu handietan ikustea merezi duten artelanak. Ez da kontu berria ere, euren lanak erakutsi dituzten artis-ten adinari erreparatzea besterik ez dago. Frantziako hiriburuko Villa Emerige galerian



Magrebeko eta Ekialde Hurbileko dozena bat artistaren lanak izan ziren ikusgai iazko urrian eta azaroan. Laila Muraywid 1956an jaio zen, Khaled Takreti 1964an, Abderrahim Yamou 1959an, Yazid Oulab urtebete lehenago. Baina sortzaile helduak izanda argitu ditu fokuak, artearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Erakusketa horrek *Le Monden* orrialdeetan toki esanguratsua hartu zuen garai beretsuan, artista gazteagoen lanak jarri zituen enkantean Christie's etxeak eta negozioa bikain atera zitzaion: %83 salduta, 1.700.000 euro baino gehiago ordaindu zituzten bezeroek.

“Erosle eta artista berriok gure katalogoari erantzun dioten energiak eta berotasunak ezohiko burrunba eta kitzikapena eragin dute enkante-aretoan gaur” adierazi zuen Michael Jehak, Christie's-en Ekialde Hurbileko zuzendariak. Eta ez dirudi gorpila geldituko denik, artista askorentzat historiak euren herrialdeetan eman duen errebueltak jauzi kualitatiboa emateko aukera eskaini dio.

Erreportaje hau janzteko Nermine Hammam-en argazkiak erabili dugu. Azken hamar urteetan erakusketa ugari egin du Egipton, baita atzerrian ere, baina badira nazioartera ateratzeko manierak eta manierak. 2008an Grezian ari zen bere lanak erakusten, etxetik igeri batera. 2011n, geografikoki hain urrun egon ez arren, harresi ikusezinak jartzen espezialista den Frantzian erakutsi ditu bere fotoak, Parisen eta Dieppen; baita Afrikaren beste muturrean ere, Bamakon, Maliko hiriburuan. Lagunduko zion, bere lanetan Egiptoko militarren argazkiak eta kolore saturatuz beteriko hondoak konbinatuz “udaberri arabiarra”-ren metafora bikaina osatzeak.

Demokrazia, ideal hori

Segi genezake hizketan azken urtean arabieraz hitz egiten duten artistek itsasoaren beste alde honetan izan duten oihartzunaz, dizipli-

Nondik dator artista arabiarrenganako lilura? Ideal demokratikoa aspaldi itzali zen Mendebaldean eta berpizteko aukera ikusi dute zenbaitek matxinadekin lotutako produktu kulturalen bidez

naz diziplina errepasoa egin, kasu batzuetan paradoxikoa baino, amorragarria ere bai baita, rap kantarienean berbarako, nola hango abeslari iraultzaileak goratzen diren –*The New York Times*ek berriki lorez jantzi zituen matxinadei soinu banda jarri dioten hip-hop abeslariak– eta hemengoei kasu zipitzik egin ez. Baina, nondik dator artista horien lanek sortzen duten fazinazioa eta berritasun sentsazioa?

Badirudi Mendebaldeko sistema demokratiko burgesek bizi duten nekearen eta asperduraren aurrean, ideal demokratiko garbi eta berria aurkitu duela hainbatek –eta “hainbatek” diogunean “boterean dau-

denek” diogu– herrialde arabiarretako matxinadetan. “Ikusi han nola estimatzen duten guk hemen badaukaguna” esango balute bezala da, “ez zaitez hainbeste kexatu, munduko zenbait lekutan hiltzeko prest daude zuk jaiotzetik daukazuna lortzeko”. Eta mezu hori askoz hobeto sartzen da produktu kulturalen bidez. Politikarien diskurtsoek eraginkortasunik ez

daukaten lekuetan artista arabiarrek badaukate aterten bat edo beste irekitzeko aukera. Ikusi beharko 2011n hasitako matxinada giroa baretzen denean herrialdeotan geratzen den egoerak lagundu ote dezakeen mezu hori transmititzen jarraitzen –antzeko operazio ideologikoa gertatu zen 1990eko hamarkadan kapitalismoak Ekialdeko Europako herrialdeak hartzaren indarrez besarkatu zituenean; agerikoa da ez zuela Europa zaharrean ilusio berririk sortu–.

Baina den-dena ez da okerrerako. “Udaberri arabiarra” gauza bat gutxienez lortu du, eta da bestela inolaz ezagutuko ez ziren sortzaileak plaza zail hauetara ekartzea. Globalizazio kulturalaren beste urrats bat edo momentu jakin bateko interesek bultzatutako loralditxo den, hori da ikusteko dagoena. ■



Antzerkia

Sortzaileak espazioa kudeatzen

6 Pabilioia Anton Txekhovek XIX. mendearen bukaeran idatzitako narrazioa bada ere, egun Bilboko Zorrotzaurre auzoan aurki dezakegu. Txekhovek zoroetxe batean kokatu zuen kontakizuna, baina egungo 6 Pabilioia antzezlez, dantzariz eta arte eszenikoen sortzailez hornitzen da. Irene Bau Bilboko espazio berri honen bazkide fundatzaileak dio “apur bat erotuta” daudela horrelako proiektuari ekiteko, “baina benetan gaude ilusionatuta”.

MYRIAM GARZIA

ZORROTZAURREKO antzinako pabilioi industrial batzuk hilik daude eta beste batzuk aktibo; gainontzean, etxe zaharrak eta langileen tabernak baino ez dira geratzen. Magdaleno jauregi berrituan –aurreko mende hasieran etxe dotorea izan zela ikus daiteke–, eskuinera joz gero, hormetan jarritako paperezko kartelek 6 Pabilioirantz zuzentzen zaituzte. Eliza berritu txikia eta umeen jolas-parkea inguratu eta kale kantoiaren amaieran dauden pabilioi industrialetara goaz. Han daude zain aktore bi, Irene Bau eta Pako Revueltas, 6 Pabilioiaren bazkide fundatzaileak. Eszenatokia desarmatuta dago eta pabilioiaren horma garai eta beltzetan M'angelen *Giza paisaiak, denbora infinitua* argazki-erakusketa ikus daiteke. Aulkiak eta mahaiak han eta hemen.

“6 Pabilioia beharrian batetik sortzen da. Ez da euskal aktoreak baztertuta sentitzen garenik, baina egia esan, gutxi dira euskal antzerki eta dantza taldeen lana lehentasun gisa erakusten duten aretoak”, argitu du Irene Bauk. “Gure asmoa hori da, bertan ekoizten diren lanak erakustea, aberatsa eta biziki aktiboa den eszena dugu-eta”. Euskal eszenan dauden sortzaileek kudeatutako aretoa da, antzerki eta dantza munduan dauden beharrrak eta hutsuneak ondo ezagutzen dituzten sortzaileek gestionatua. Batez ere aktoreak eta dantzariak ari dira gunea bultzatzen baina baita argiztapen- eta soinu-teknikariak ere.

Ekimen pribatua izanik, ez dute nahi euren lana erakunde publikoen irizpideek trabatzea eta horregatik, elkartea sortu dute. Euskal



6 PABILIOIAK UTZIA

antzerkian eta dantzan aspalditik aritutako izen eta izan handiko hamahiru sortzaile dira bazkide fundatzaileak: Ander Lipus, Blanca Arrieta, Borja Ruiz, Irene Bau, Jose Urrejola, Jose Ibarrola, Josu Montero, Matxalen Bilbao, Nagore Navarro, Nuria M. Cres, Pako Revueltas, Patxo Telleria eta Ramon Barea. “Baina gure asmoetako bat da publikoak berak ere espazioaren kudeaketan parte hartzea. Ez dugu publiko arrunta nahi, ikuskizunera datorrena eta gero etxera itzultzen dena. Elkartean parte har dezaten nahi dugu, publikoarekiko gertutasuna lortzeko, eszena eta publikoaren arteko hesia apurtuz. Egun 200 bazkide ditu elkarreak eta egia esan, gure hasierako asmoak gainditzea lortu dugu” esplikatu du Bauk.

Ekonomikoki ere parte har dezake ikusleak: bazkide fundatzailea izateko, eserleku fiktizioa eros daiteke. 150 euroren truke, bazkide fundatzaile izan gaitzke eta urte osoko programazioa ikusteko balio duen eserlekua lortu. Zenbakidun bazkidea izatea dugu beste aukera bat: 90 euroren truke urte osoko programazioan %50eko deskontua izango dugu. Hirugarren aukera bazkide arrunta izatea da: ikuskizun baterako sarrera erosita, automatikoki 6 Pabilioiaren bazkide bilakatuko gara. “Urtean behin, asanbladak egiten ditugu bazkide guztiekin, baina eguneroko funtzionamenduan bazkide fundatzaileak murgiltzen gara, denok eguneroko erabakietan parte hartzea konplexua da-eta”.

Urte osoko programazioa

Iazko Aste Nagusian ireki zituen ateak espazio berri honek eta ordutik, hilero-hilero programazio iraunkorra mantendu du. Euskarazko antzerkia programatzea lehentasunetako bat da beraientzat: “Bazkideetako batek izugarritzko diru-laguntza eman digu, euskarazko antzerkia programatzeko baldintzapean” azaldu du Bauk. “Gainera, mitoa da euskarazko antzerkia minoritarioa denik, ez behintzat erdarazkoa baino gehiago. Gure esperientziak erakutsi digu ez dela horrela, aretoa berdinberdin bete baita”, dio Pako Revueltas aktoreak. Horren adibide, 2011ko urrian eskaini zuten *Errantsak* lana, Artedramak, Dejabuk eta Le Petit Théâtre de Pain taldeen eskutik. “Egia da lan arrakastatsua izan dela, Donostia Hiria saria da horren lekuko, baina aretoa bete egin zen. Eta harritzekoa dena, jende gaztea hurbildu zen antzokira!”, dio Revueltasek. Bauren ustez jende gazteak, 15-30 urte artekoek, ez dute antzerkiera joateko ohiturarik. “Gure asmoetako bat da horiek pabilioira erakartzea. Ez gara Arriaga, ez dugu alfonbra

eMe: emakumeek egina

6 Pabilioiaren beste ekimenetako bat, programazioari dagokionez, eMe zikloa da, emakumezkoak egindako antzerkiari eta dantzari eskainia. “Urte osoan mantenduko dugun zikloa da. Nahi duguna zera da, bai zikloak bai programazio arruntan dauden lanak iraunkortasuna izatea. Ez izatea egun bateko gauza eta kito. Antzerki taldeei lan egiteko baldintza duinak eskaini nahi dizkiegu”, azaldu du Irene Bauk.

gorririk... hori da gure abantaila jende gaztea erakartzeko orduan”.

Harrobia eta jarri ez diren harriak

Bilbon sortzen ari diren beste ekimen batzuei buruz ere egin nahi izan dugu berba arte eszenikoen sortzaile hauekin, besteak beste, Harrobia Eskenaz (Bilbo-Otxarkoaga-ko Ekoizpen Eszenikoen Berrikuntza Zentroa) eta oraindik proiektua baino ez den Antzerki Profesionaleko Goi Mailako Eskolaz. “Eskola funtsezkoa da”, baieztatu du Irene Bauk, “titulu bat beharrezkoa da, beste ogibide batzuetan bezala, antzezle profesionala izateko”. Harrobia Eskena zentroa, Bilboko Udalaren ekimena da, baina Eskenak kudeatzen du, euskal antzerki taldeen elkarreak; zera dio Bauk horri buruz: “Bi ekimen horiek aspaldiko borroka dira, eta zorionekoak gu azkenean heldu direlako! Harrobia behar-beharrezkoa dugu antzerki taldeek; batez ere, orain hasten direnek. Egoitza horretan kalitatezko ikuskizunak ekoiztu daitezke, horretarako jairo baita, antzerki taldeek baliabide egokiekin lan egin dezaten. Luxua da, baina beharrezkoa gure ikuskizunak maila onekoak izan daitezen”.

Eskola beste kontu bat da. Proiektua pape-rean baino ez dago, oraingoz. Pako Revueltasek kritikatu egin du Eusko Jaurlaritzak duen jarrera: “Isabel Celaári gutuna bidali diogu, tonu gogorrean. Euskal Aktoreen Batasuneko kide gara —proiektu hori martxan jartzeko dagoen Plataforma—, eta sinesgarritasuna galtzen ari gara Jaurlaritzan borondaterik ez dagoelako. Orain dela urtebete egin genuen Eszenikaren aurkezpena, esanez 2013rako egina egongo zela; eta Jaurlaritzak oraindik ez du atera lehiaketara eraikuntza lanak egiteko deialdia. Gure aldetik, curriculum landu eta aurkeztu dugu dagoeneko. Ez dugu pentsatu nahi proiektua bere horretan geratuko denik, baina errealitatea da, egun, geldirik dagoela. Epealdi guztiak gainditu dira jada eta ez dute azalpenik eman. Badi-rudi legealdia bukatu nahi dutela eta eskolaren proiektua bere horretan geratuko dela”. ■



Liburuak

KRITIKA

Mintzo den luma

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez


NEGUKO HOTZAREKIN batera, kaleak behe lainoz estalirik zeuden arratsalde batean, eta ilunabarrak dakarren isiltasunaz lagunduta irakurri nuen Anxel Foleren (1903-1986) liburua. Zenbait istorio giro aproposa eskatzen dutelakoan nago, bai irakurriak eta bai kontatuak izateko. Hori da, hain zuzen ere, idazle galiziarraren *Kriseiluaren argipean* (*Á lus do candil*) ipuin bilduma osatzen duten hamabost narrazio laburren abiapuntua.

Lugoko hegoaldean, idazlearen bizitokia izandako Caurel lurralde basatia kokatzen da. XIV. mendeko dorretxe batean bizi diren ugazaba eta zerbitzariak sutondoan hasi dira kontu kontari, elurtea noiz igaroko den zain. Narratzaile anonimoen bitartez, Folek Caureleko herri tradizioak gorde dituen istorioak ezagutzera ematen dizkigu eta, aldi berean, berak asmatutako beste batzuk gehitzen ditu. Liburu honen berezitasun nabarmentariko bat, idazleak ahozko tradizioaren ohiko

freskotasuna zein bat-batekotasuna maila idatzian ere zaintzeko erakutsi duen gaitasunean datza. Irakurlea entzule bilakatzeaz gainera, tokian tokiko eta kriseiluaren argipean kontaktzen ari den istorioaren lekuko eta partaide bilakatzen da, narratzaileak etengabe baliatzen dituen hurbiltasun zein konplizitatezko formulen bitartez.

Kanpoko elur malutek leihoko kristalean talka egitean ateratzen duten zarata, mendietan barrena dabiltsan otsoen uluak, etxe barruko argi ahula edota haizearen presentzia ezkutu misterioitsuaren arteko konbinazioak, irudimenaren mundurako atea zabaltzeko prestatzen gaitu; sorginak, mamuak, hildakoak eta, oro har, sinbologia sakoneko objektuak (kartak, hildakoen erretratuak, idazkiak, ispiluak...) eguneroko bizitzako gertaeretan txertaturik agertzen zaizkigun elementuak izanda ere, errealtateari ukitu magiko bat eman nahian bezala ageri dira. Ipuin batzuek amaierako moraleja modukoa dakarte (*Anton de Cidran* edo *Hildakoek gaztelaniaz hitz egiten zuten*) eta beste batzuek aldiz, ametsa espresabide dutenak bereziki, giza inkontzientearen indarraz mintzo dira, interpretazio desberdinetarako aukera eskainiz (*Arxemirola*, *Aleluia!* edo *Ispilua*).

Isiltasuna da nagusi. Soinu bakan bat baino ez da entzuten. Anxel Foleren luma da, kriseiluaren argipean, hizketan hasi zaiguna.



Kriseiluaren argipean.
Anxel Fole.
Itzul.: Josemari Navascués.
Alardania-Elkar.
140 orrialde.
10,80 euro.



ZIO

ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz

Universidad
del País Vasco

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA
BIZIA

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Martin Larralde.
Batzuen artean.
Bonberenea Ekintzak.
Iraupena: 33'24".
10 euro.

Koblakarien lan nekeza

ENEKO BARBERENA eta Mikel Ocejá Arrasateko bi ipurterre dira. Barberenak hausnarketa, poesia eta prosa batzen dituen liburuxka (hirugarrena dagoeneko) idatzi, Ocejá janzten lagundu eta beste lagun baten erruz liburu-diskoa egiteko lanean jarri ziren, Bonberenea Ekintzak-en laguntzarekin. Hala, ia hiru urte hartu dituen epean 11 musika taldek testuetako batzuk musikatu dituzte askatasun osoz. Horien artean, bada bertsorik (Jokin Labayen eta Manex Agirre), folk

iluna (3 Zikinak), gaurkotuagoa (Ain_1), countryra hurbilketa (Bihotz Bakartien Kluba), errezitatuak (Xabi Strubell), hip-hop eta crossoverra (F-21, Basske), baita Gosereren eta Pirritx eta Porrotxen ekarpenak ere, Bonberenea Txarangarekin bat eginik. Arrasaten eta Bonberenean baka-rrik erosi daiteke, baina sarean eskuragarri jarri dute emakumetu edo gizonduez diren ume guztientzat.

www.martinlarralde.org

Eneko Barberena - Martin Larralde

«Azkenean luzaroan irauten dutenak liburuak, filmak, diskoak eta kantak dira»

Zer dute talde hauek guztiek komunean?

Guztiak direla nire gustukoak. Guztiak daude Arrasatekin edo Bonberenearekin lotuta, eta batzuk bidean ezagutu ditut. Bertsoak, folka, elektronika eta abar dago, baina Txapek lan handia egin du eta ondo batu ditu kantak. Norbaitek esan dit rock gutxi dagoela, baina niretzat hori naturala da. Gainera, rocka egiten dutenek ere proiektu honetan bestelako soinuak landu dituzte beraien borondatez.

Martin Larralde bezalako koblakariak, ahotsak eta testigantzak falta dira Alzheimer, herri kazetaritza sentzazionalista eta zentsura garai hauetan?

Horren guztiaren aurrean Internet bada aukera bat espresatzeko, baina gure begi bistatik informazio gehiegi igarotzen da eta benetan oso gutxi da irauten duena. Azkenean



Eneko Barberena, eskuinean.

luzaroan irauten duena liburuak, filmak, diskoak eta kantak dira.

Bi egileok 80ko hamarkadako punkaren zaleak ez izan arren, Josu Eskorbuto aukeratu duzue azalerako...

Neurri batean txantxa da, ez dagoelako Euskal Herrian Larralderen figura baino kontrajarriagoa denik: bata, euskalduna, nekazal girokoa... bestea, erdalduna, giro industrialekoa... Baina, bestalde, Josuren kantetan ederto jasotzen da bere garaia

nolakoa zen, bere bizimodu eta pentsaera.

Proiektu hau gauzatzeak ausartago egin zaituzte?

Agian ausartagoak bai, hau irten ez balitz oso zaila litza-tekeelako idazten jarraitzea.

Zer izan da zailena?

Gauza askotan ezezagutza handia genuela eta bidean ikasi behar izan dugula. Baina ikasi dugu autoekoizpena zer den, jende asko ezagutu dugu...

Musikariak koblakari proposak dira? Gustuko dituzu gaur egungo musika taldeen hitzak eta jarrera?

Bai. Mezulari proposak daude, hitz mamitsuak dituztenak eta pentsarazteko gaiak ematen dizkidentak. Arrasaten bertan urrunago joan gabe, Anger, Gose, Never Surrender eta Ain_1 aipa ditzaket. ■



Ezpalak

JON TORNER

Abian da 'Bardoak', Nafarroako taldekako bertso txapelketa

OROTARA 17 talde eta 51 bertsolari lehiatuko dira 'Bardoak' txapelketan. Bi hilabetetan 24 saio egingo dira, azkena, finala, Leitza martxoaren 31n. "Taldea lana da ekimenaren oinarria eta helburu nagusia, elkarre giroko saioetan bertsozaleari bertsolaritzaz gozatzeko bestelako aukera eskaintzea, kalitatezkoa eta hurbila", azaldu dute antolatzaileek. Gutxienez bost partaide ditu talde bakoitzak: hiru bertsolari, gaitortzaile/aurkezle bat eta taldekako ordezkaria. Hortik aurrera, nahi adina laguntzaile. Horiek, ahal izan den kasuetan, eskualde edo inguru bereko kideekin egin dira. "Halaber, talde lana da bertsolariak saioetan egin beharko dutena, denen artean banatu beharko dituzte egin beharreko ariketak". Txapelketa berriari buruzko informazio gehiago (parte-hartzaileak, saioen egutegia, sailkapena...): www.bardoak.com.

28 argazkilari garaikideren irudiak Bilboko Alondegian



BILBOKO ALONDEGIAN 28 argazkilari garaikideren 71 lan izango dira ikusgai apirilaren 15era bitartean. Besteak beste, Lewis, Sekula, Till-

mans, Thomas Ruff, Stephen Shore, Candida Höfer, Gabriel Orozco, Dan Graham, Dorothea Lange, Xavier Ribas eta Rosa y Bleda argazkilarien irudiak bildu ditu *Oroimenaren topografiak* izeneko erakusketak. "Erakusketa honek argazkilari eta artista bisualik nabarmenenetako batzuen erreferentzia zko lanetara garamatza; hain zuzen ere, egile horiek, euren begiradari esker, argazkilaritza garaikidearen eta bideo-sorkuntzaren oinarri kontzeptualak finkatu dituzte", dio Carles Guerra komisarioak. "Kontakizunak, ibilbide bisualak, geografia pertsonal zein publikoen gainjartzeak eta abarrek mugatzen dituzte oroimenaren eszenatokien inguruak". Azken 30 urteotan egindako argazkiak jaso dituzte erakusketan. Goikoa Erwin Olaf-en *Boxeo eskola* (2005) izenekoak da.



Regina Jose Galindo artistak (Guatemalako Hiria, 1974) *Oilo ipurdia* izeneko erakusketa paratu du Gasteizko Artium museoan. Bere herrialdeko arazoez mintzo dira haren bideo, argazki eta gainerakoak. Indigenen aurkako errepresioa, emakumeen aurkako indarkeria, nekazarien lan-

baldintzak... Gai ugari jorratzen du Galindok, 1999az geroztik egin dituen 30 ekintza abiapuntutzat hartuta. "Regina Jose Galindo poeta gisa abiatu zen artearen munduan, eta 1999 urtea arte ez zen bere gorputzarekin lanean hasi, modu zuzenago batean, adierazpide nagusi gisa performancea hautatuz", dio Artium-en prentsa oharrak. "Bere lanek egungo gizartearen arazoetan sarrarazten gaituzte, errealitate gordin batean, bere gorputzaren kontakizunaren bidez, era berean gordinak, muturrekoak eta sinbolismoz beteak eta ikusleei gogoeta eginarazteko abiapuntu diren ekintza sorta baten bidez".

Karlos Linazasorok

(Tolosa, 1962) irabazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Xabier Lete Euskarazko Nazioarteko I. Poesia Saria, *Ezer gehiago behar gabe* poema-bildumagatik. Epaimahaiak "poemaliburu eder eta handia" dela argudiatu du, "ideietan, metaforetan eta adierazteko moduetan aurkuntza poetiko asko dituen". Era berean, "sentimenduak eta natura elkartzeko dotoretasuna eta amodioari zein galdutako paradisuei kantatzera-koan dagoen autoironia" nabarmendu ditu. Linazasororen poemategia aurten kaleratuko du Pamiela argitaletxeak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

UNAI BREA

Tolkienen unibertsoaren “big bang”-a

Hobbita. J.R.R. Tolkien (George Allen & Unwin, 1937).
Itzulpena: Xabier Olarra (Igela, 2008).

J.R.R. TOLKIEN bere seme-alabentzako ipuin modura idazten hasi zen XX. mendeko literatur obrarik eza-gunenetako baten hazia izan zena. Aurten beteko dira 75 urte *Hobbita* lehen aldiz argitaratu zutela; apika, bera da umeentzat sortua izanik irakurle heldu gehien eduki duen eleberria. Argitaratzaileen eskariari men eginez Tolkienek idatzitako segidari zor zaio hori, zer esanik ez. *Eraztunen jauna* ondu ahala, istorioa sakonago bihurtuz joan zen Tolkien, eta haren obra, azkenik, literaturaren mugak gainditu eta unibertso beregain bihurtu zen, gaur egun milaka edo milioika, ez ditut zenbatu, jarraitzaile amorraturen bizileku alternatiboa dena. Edo agian ni bizi naizen hau da alternatiboa haientzat.



Hasita dago *Hobbita* nobela onarritutako pelikularen filmaketa.

Mitologia horren guztiaren *background*-a gogoan nuela ekin nion berriki *Hobbita* berrirakurtzeari –lehen aldia zeregin horietarako adin egokiagoan izan zen–, eta jakina, dezepzio txiki bat hartu nuen, aldeztu aurretik ongi ohartarazita egon arren. Azken batean, gauzak umeei esplikatzeko zaizkien moduan esplikatzeko ditutol-

kienek nobela. Eta *Eraztunen jauna* obra handi –nire iritziz– bihurtzen duten elementu gehienak falta dira hemen. Ez naiz orain hasiko elementu horien zerrenda egiten. Hobe, laburbiltzeko, Tolkienek berak behin esandakoa errepikatzea, bere literatur lanaren gai nagusia zein zen galdetu ziotenean: “Heriotza, ezinbestean”. ■



**Arabako kuadrilla arteko
BERTSO TXAPELKETA
2012**

Antolatzailea

Babesle Nagusiak



www.arabakotxapelketa.org

LIGAK

Otsailak 3, 4, 5:
Gasteiz, Zaldondo, Aramaio, Gasteiz
Otsailak 10, 11, 12:
Amurrio, Gasteiz, Agurain, Aramaio
Otsailak 24, 25:
Gasteiz, Gasteiz, Oion, Izarra

FINALERDIAK

Martxoak 10, 11
Zigoitia, Araia


FINALA

Martxoak 24
Aramaio

argia

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarrizen umorea

Lehen gizakia

Suitzako eskola batean, irakasleak honako hau galdetu die ikasleei:

– Zein izan zen lehen gizakia lurrean?

– Gillen Tell! –erantzun dio
ziur eta harro lehen ilaran eserita
dagoen neskatico ilehori batek.

– Ziur al zaude?

– Bai, noski! Gure heroi nazionala da!

– Eta Adam?
– A, kontxo! Atzerritarrak aintzat hartuz gero, bai!



Soluzioa

	A	J	E	O	E	Z	B
E	R	I	S	A	T	X	A
A	N	B	O	T	I	B	A
H	U	M	A	N	I	S	M
		A	L		S	O	I
M	D	C				I	A
E	U	P			M	A	M
L	I	L				K	U
A	R	S	T	I	R	A	P
A	D	A	T	U	S	U	D
D	A	T	U	A	K	N	I
B	I	A	L	K	A	T	E
					H	C	Z
							I



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Nola eboluzionatzen du ugaztunen tamainak?



MONASH UNIBERTSITATEKO (AEB) Alistair Evans ikerlariaren lantaldeak aztertu egin du ugaztunen tamainaren eboluzioa azken 70 milioi urteetan, eta datu interesgarriak argitaratu ditu. Adibidez, errazagoa da lehorreko ugaztun batentzat txikiagoa izatea handiagoa izatea baino, eta itsasoko ugaztunen handitze abiadura handiagoa da lurtarrena baino.

Hona hemen datu batzuk: lehorreko ugaztun batek tamaina 100 aldiz handitzeko 1,6 milioi belaunaldi behar dira, tamaina 1.000

aldiz handitzeko bost milioi belaunaldi, eta hamar milioi belaunaldi tamaina 5.000 aldiz handitzeko. Adibidez, saguen tamaina elefanteenaren adinekoa izateko 24 milioi belaunaldi behar dira. Aldiz, ugaztunen txikitzea askoz ere astiroago gertatzen omen da: ugaztun bat nano bihurtzeko 100.000 urte baino ez dira behar.


Baina nola liteke ugaztun batek txikitzeko joera izatea? Batez ere lurralde mugatueta, irletan adibidez, gertatzen da hori. Janari gutxiago dagoenez, egoera horretara moldatzeko txikiagotzen dira animaliak, eta aldi berean ugaltze-tasa handitzen dute.



Eguzki-ekaitzek urrundutako elektroaiak

EGUZKIAN, aldiro-aldiro, leherketa erraldoiak gertatzen dira eta horren ondorioz aldaketak izaten dira Lurraren eremu magnetikoan. Esaterako, iparrorratzek eta GPS sistemek ez dute funtzionatzen, poloen inguruetako aurorak indartsuago azaltzen dira eta latitude baxuagoetan ikusteko aukera izaten da.

Aspalditik ikerlariak kezka sorrazten zien gertakari baten erantzuleak ere badira eguzki-ekaitzak: Lurra inguratzen duen erradiazio-gerrikotik elektroaiak aldi batez desagertzea. 60ko hamarkadatik ezagun da fenomeno hori, baina oraintsu arte ez da jakin nora doazen elektroai horiek: gutxi batzuk atmosferara "erortzen" dira, baina gehienak planetatik aldentzen dira, eguzki-haizearen partikulek bultzatuta.



Munduko laser indartsuenak materia sortzen du

Stanford-eko Unibertsitateak kudeatzen duen LCLS laserra segundo bateko bilioirenean erabiliz aluminio xafla bat bi milioi gradutaraino berotu eta bertan plasma egoeran zegoen materia berria sortu zen. Ikerketak lagundu dezake izarretan gertatzen diren antzeko gertaerak hobeto ulertzen. <http://ttiki.com/34693> (Gaztelaniaz)

Interneteko protokolo berrira egokitzen

Madrileko Carlos III.a Unibertsitatean egungo Interneteko protokoloan (IPv4) kokatuta dauden edukiak laster indarrean egongo den protokolo berriarekin (IPv6) bateragarri izatea ahalbidetzen duen teknologia garatu dute. <http://ttiki.com/34694> (Gaztelaniaz)

Alzheimerraren aurkako antigorputzak

Zenbait gaixotasunen kontra borrokan aurrerapenak egitea zaila izaten da, lehenbizi kaltearen eragileak detektatu behar direlako eta ondoren selektiboki akabatu behar direlako. Berriki, Alzheimerraren eragile nagusienetakoa den molekulari soilik erasotzen dion antigorputza sortu da. <http://ttiki.com/34695> (Ingelesezt)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Simaur minetan

LORETIK LORERA polena garraiatzeko saguzarren bat erabiltzen duen landaretik bada. Trukean, hegaldia gozatzeko, nektarra. Nektar hori ez da, nonbait, huseria. Bere ordainetan, landare batzuk aparteko lanak egiteko prest dauden animalia-lagunak topatzeko ez dute, itxuraz, lan handirik.

Nepentes generoko landareek intsektuak baliatzen dituzte. Landareok lur elkorretan bizi dira, elikatzeko nahikoa lan badute eta jaki gabezia hori arintzeko haragijale egin dira. Intsektuak harra-patzeko arteak asmatu dituzte. Genero horretako aldaera gehienek lore handi tenteak dituzte, pitxar tankerakoak. Lorearen beheko barrenean nektar putzua. Gozokiaren tranpan intsektua erori eta ito ondoren landareak hustu egingo du, batik bat nitrogenoa xurgatu. Genero horretako beste landare batzuek sataginak edo satixuak baliatzen dituzte. Nektarra hurrupatzeko mutturra luxe-luxe egin behar du karraskariak, ipurdia lorearen ahoan ipiniz. Beste animalia gehienoi bezala sataginari ere bere sailak mugarritzea gustatzen zaio, baita nektarra ematen dion lorea ere. Mugarria kaka pila bat izaki, lorean ere halaxe egiten du. Eta lorea gustura, nitrogenoa eta gainontzeko ongarriak etxerako.

Nepentes baramensis-ek, aldiz, arriskurik gabe jokatzen nahi du eta intsektuak jateko gai den lorea saguzar



Nepentes generoko landare haragijalea.

baten habia bihurtzen du, harekin luzerako tratua lotuz. Tratua eginda, loreak nektar gutxi eman behar eta usain erakargarriak ekoizten energiariak gastatu beharrik ez. *Kerivoula hardwickii hardwickii* da saguzarra. Hark ongi babestutako lo-tokia eskertu egingo du eta sataginak bezala bere kaka eta pixak bertan utziko ditu. Komunadun logela. Landareak obramenduak berrerabili eta ongarri hartuko ditu. Besteak beste, behar duen nitrogenoaren heren bat baino gehiago horrela erdiesten du. Mutualismoa deritzo kidetasun horri, biak nolabaiteko onura eskuratzen duten sinbiosi era bat. Kaka minetan, biak. Borneon gertatzen da istorio hori.



5.500 urtetik gora

Atzo arte soja landarea (*Glycine max*) Txinan etxekotu eta duela 3.000-4.000 urte inguru soroe-tan landatzen hasi zirela uste zen. Japonian, Hego Korean eta Txinan bertan jasotako arrasto arkeologikoetan oinarrituta garai bertsu batean hiru estatu horietako toki askotan soja lantzeari ekin ziotela zabaldu dute. Era berean garai hori uste baino lehenago izan omen zen, duela 5.500 urte inguru. Milaka urte behar izan ditu, baina iritsi da: gero eta sukalde gehiagotan ikusten dut soja.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertzea 28. beheko solairua 1-2
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Emeen espermatozoideak eta alderantzizko eboluzioa

PARIS, 1788KO APIRILAREN 16A. Georges Louis Leclerc, Buffoneko kondea hil zen, eta 44 liburukiz osatutako *Histoire Naturelle* obra mardula utzi zigun. Matematikari, botanikari, biologo, kosmologo eta idazle frantziarrak naturari buruzko giza eza guera guztia bildu nahi izan zuen lan horretan. Zalantzarik ez dago obra horretan zenbait ekarpen egin zituela, baina denetan asmatzerik ez dagoenez, hipotesi bitxi mordo ere sartu zuen.

Esaterako, emeek –emakumezkoek barne– espermatozoideak sortzeko ahalmena dugula defendatu eta “frogatu” zuen. Hainbat zientzialari gonbidatu zituen prestatutako demostraziora. Txakur eme bat hil zuen, disezioa egin zion, eta obulategietan espermatozoideak topatu zituen. Zientzialarietako batek txakurra araldian zela eta txakur ar batek estali berri zuela esan zionean, Buffoneko kondea ez zen larritu: txakurra estali berria zela onartu zuen, baina espermatozoideek obulategietara iristeko askoz denbora gehiago behar dutela erantzun zion.

Eliza katolikoarekin tirabirak izan zituen munda 50.000 urte zituela esaten zuelako –asmatu ez



FRANÇOIS-HUBERT DROUAI

G.L. Leclerc (1707-1788) naturari buruzko jakinduria guztia obra bakarrean biltzen saiatu zen, eta hainbat harribitxi utzi zizkigun.

baino gehiago gizakiaren eboluzio degeneratiboaren teoria berrikusteko eta aintzat hartzeko prest egongo da, egungo egoerari erreparatuta.



arren, Eliza baino gehiago hurbildu zen benetako adinera– eta eboluzioaren teoria defendatzen zuelako, Darwinek argitaratu baino ehun bat urte lehenago ere.

Baina horrek ez du esan nahi Darwini aurreratu zitzaionik. Leclercen espezien eboluzioari buruzko teoria berezia zuen: beheranzko eboluzioa edo eboluzio degeneratiboa esan diezaiokegu. Zenbait espezieetan –ez guztietan– eboluzioa bazela, aldaketak bazirela onartu zuen, baina aldaketa horiek ez zituzten espezieak hobetu, okertu baizik. Hala, astoak zaldi eboluzionatuak (degeneratuak) ziren haren ustez, eta tximinoak, aldiz, gizakien eboluziotik sortu ei ziren.

Garbi dago emeek ez dutela espermatozoiderik sortzen, eta Lurra 50.000 urte baino askoz gehiago dituela. Baina Buffoneko kondea, izenak izen, bere garaiko zientzialaria zen, hau da, bere garaiko mugekin egin zuen topo. Gainera, bat

Arrastoak

Naturan inoiz neurtu den temperaturarik baxuena



VOSTOK BASE ANTARCTICA

TERMOMETROAK -89 gradu markatu zuen 1983ko uztailean, Antartikako Vostok base errusiarrean (argazkian). Baseak 1958tik neurtzen du tenperatura eta ez hor, ez munduko beste inongo puntutan ez da sekula halako hotzik jaso. Itsasotik zetorren masa hotz

batek eragin zuen ohiz kanpoko hotza, eta hodeirik ezak sortutako “diamante hauts” fenomenoak areagotu. Adituen arabera, teoriar, -96raino ere irits liteke, baina praktikan klima-aldaketak dio ziur aski denbora asko pasako dela 1983ko marka hautsi arte.

Joxemi Zumalabe Fundazioa

Sormen kolektiboa garatzeko lanean

Marta Luxan (1970) Bilbon jaioa da; Hernanin bizi da. Jokin Azpiazu (1981) Soroluzen bizi den ermuarra da. Joxemi Zumalabe Fundazioko (JMZ) Talde Eragileko kideak dira. JMZko proiektu berrian lanean ari dira 2010etik. Datorren martxoaren 17an, fundazioaren aro berriko aurkezpena egingo dute Zarauzko Putzuzulo Gaztetxean. Fundazioaren asmoez eta norabideez mintzatu gara beraiekin.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA (JMZ) 1995ean sortu zen. Herri mugimendua sustatzeko helburuz eratu zen, eta gaur egun ere lan horretan dihardute bere partaideek. Fundazioaren Talde Eragileko kide Marta Luxan eta Jokin Azpiazurekin berba egin dugu, soziologoak dira biak ala biak. Solaskideek ez dituzte azken hamarkadetan sortutako gizarte teoriak gutxiesten, alabaina, sormen kolektiboa hobesten dute: “Herrigintza sendo izatea gakoa da gure etorkizunaren jabe izan nahi badugu. JMZko kideontzat teorizatzea lan kolektiboa da, lan taldean oinarritua sortzea” esan digu Marta Luxanek.



Marta Luxan eta Jokin Azpiazu Joxemi Zumalabe fundazioko kideak

Euskal Herriko herri mugimenduen lan-eremak ezagunak dira, baita Espainiako Estatuaren aldetik jasan duen errepresioa ere. 18/98 + auzia gogoratzea besterik ez dago: “Fundazioak hainbat fase ezagutu ditu proiektuaren garapenean. 2000. urteko atxiloketak kolpe gogorrak izan ziren. Fundazioaren egitasmo-

ak gelditu behar izan ziren defentsa lanak egin ahal izateko. Auzia 2008an absoluzioarekin itxi bazen ere, jasandako injustiziak hor daude. Esperientziaren alde baikorrak jaso ostean, egungo hausnarketek fundazioaren funtzionamendu berriak ekarri dituzte”, adierazi digu Jokin Azpiazuk.

JMZ Fundazioa aro berrian ari da. Azaldu itzazue zuen asmoen nondik norakoak, hasteko.

Marta Luxan: Asmoak herrigintza landu nahiarekin lotuta daude. Herri mugimendua indartsua izatea garrantzitsua da, eta areago garai hauetan. Horretarako ari gara lanean. Egungo egoera soziopolitiko, oro har, ez da 1980. hamarkadako, ezta 90ekoa ere. Zentzu horretan JMZk egindako lana jaso ondoren, egungo egoera aztertu dugu eta gure jardura egokitzen ari gara.

Jokin Azpiazu: Historian kokatu aldera berriz ere, 18/98 + auziaren absoluzioaren ostean, Fundazioko kideen eta kolaboratzaileen aldetik hausnarketa egin zen. Proiektua berrabiatzea erabaki zen, jende berriarekin kontaktatuz. 1995eko helburuak zilegiak eta oso beharrezkoak ikusten ditugu, baina eguneratu beharra ikusten dugu. Izan ere, egoera soziopolitiko ezberdina da, areago, maila teorikoan dauzkagun erreferenteak ezberdinak dira, aukera gehiago daude orain.

Luxan: Herri mugimenduen beraren egoera ere desberdina da, baita gaur egun dauzkagun baliabideak eta funtzionatzeko moduak ere.

Azpiazu: Birsortze prozesu honetan gure proiektuaren zirriborroa egin dugu eta beste eragile batzuei aurkeztu diegu. Gure jardura herri mugimenduekin eta herri mugimenduarentzat izatea nahi dugu. Iritzi trukatzeko garaian gaude,

jarraian dinamika berria sortu nahi dugu gure proiektuaren baliagarritasuna neurtzeko.

Aldaketa garaia delakoak zein eragina du zuen proiektu gaurkotuan.

Azpiazu: Nik ez nioke horrenbeste inportantziarik emango "aldaketa politiko garaia" delakoari, ez nuke ETAk bere jarduna utzi izanaren aldetarekin lotuko, adibidez. Gure hausnarketak lehendik datoz, fase politiko hau agortutzat eman baino lehenagotik, une historiko hau baino lehenago ere bazeuden kezkek. Horregatik, beste herri eragileen kezkek ere badute zerikusia gure proiektuaren asmo eta kezekin. Laburrean, hauek dira herri mugimenduen arrazoi batzuk: jendeak ez du herrigintzan parte-hartzen 80-90. hamarkadetan bezala, jendearen parte-hartzea eta erabakitze moduak eraldatu dira.

"Batuetan menpekoak gara eta bestetan menperatzaileak, hori argiago izan behar dugu"

MARTA LUXAN

Luxan: Eta ziur aski ez dugu parte-hartzen orduan bezala, moduak eta praktika haiek ez direlako beti osasuntsuak izan. Edo izan dituzten ondorio batzuei—adibidez, harreman pertsonalei dagokienez— askotan oso garrantzi gutxi eman zaielako, edo ez direlako sakondu behar bezala. Guk ikuspegi zabalago eta landuago batekin jardun nahi dugu, jendeak ere horri horrela begiratzen diolako.

Azpiazu: Parte-hartzeari begira aldaketa moduko bat dago. Badago parte-hartze sozialari buruzko eza-gutza eta neurtze nahia: noraino heldu gaitezke eta noraino ez? Posible al da herri mugimenduetatik bakarrik hau edo hori egitea? Posible ote da instituzioetatik kanpo jardutea? Edo haien barrutik ekin behar zaio? Eztabaida dezente dago gai hauen inguruan. Azken bi urteotan herri mugimenduan ari diren jendeak hausnarketa prozesuan daude, birfundatze eta berrantolaketa lanetan. Guk herri mugimen-



"Guztiok nahi dugu fase hau modu ordenatuan bukatzea, baina ordenua bakoitzak nola ulertzen duen argitzea oso garrantzizkoa da". JOKIN AZPIAZU.

duak berrartikulatze garaian kokatzen ditugu, baina horrek ez du hainbeste zerikusirik instituzioak, alderdiak edo ETaren amaiera nola artikulatzen diren, herri mugimenduak eta gizarte zibila artikulatzearekin baizik.

Iragan garai politikoaren eraldatzeari begiratuko diezue, halere. Baina, berau ordenatzeko moduak ere ezberdinak izan daitezke.

Luxan: Bai, noski. Zenbait gauzetan ikuspegi ezberdinak badaude ere gure artean, argi daukagu egoera berezi baten aurrean gaudela, oso interesgarria. Gure nahia herri mugimendua instituzioen menpe ez egotea da, garrantzitsua da gure logikaz jardutea, herrigintza antolatu nahi dugu geure indarrez jarduteko, "politika"ren eta merkatuaren logikaren menpetik kanpo.

Azpiazu: Dena den, guk ez diogu garrantzia kendu nahi aro politiko berriari, jende askok ahalegin handia egin du egoera honetara iristeko. Guretzat ere sortzen ari den artikulazio politiko berriak badu garrantzia. Guztiok nahi dugu fase hau modu ordenatuan bukatzea, eta ordenua bakoitzak nola ulertzen duen argitzea oso garrantzizkoa da. Izan ere—iritzi ezberdinak ditugu ere gure artean—, une politiko batek "normalizazioa" ekar dezake, baina ez beti zentzu positiboan ulertua.

Tolosako Babarruna

Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

943 650 253
www.tolosakobabarruna.com

Guk “normalizazioa” ez dugu ulertzen herrigintzaren “desaktibazioa” bezala. Euskal Herriak bi aukera dauzka: normalizatzea edo eraikitzea. Herri mugimenduko partaideok herri antolaketaren eredia eraikitzen jarraitzea nahi dugu, eragileen arteko artikulazioa sendotzen eta saretzen. Aro berrian gaude baina herri eraikuntza ez da zeregin berria, logika horretan behar da sakondu, eta ez horrenbeste gatazka politikoa normalizatzeko zeregin soilean. Beste eragile batzuk ari dira horretan, euren lana begi onez ikusten dugu horregatik.

Luxan: Lehenago merkatu logika aipatu dut, logika gogorra da, baina ez bakarra. Guk eraldaketa soziala bultzatu nahi dugu, baita merkatuaren logikaren aurrean bizitza logikoagoa ezarri ere. “Normalizazio politikoa horrek” ez du bermatzen bizitzaren aldeko logika duina edo guk nahi dugun logika behintzat.

Zuen hausnarketetan feminismoaren garrantzia agerikoa da.

Luxan: Feminismoa esplizituki azpimarratu dugu, pentsamendu feministaren emaria oso handia delako. Egun, bizi ditugun bai aldaketa garaia bai krisia ulertzeko funtsezkoa da. Pentsamendu feministak lortu du begirada jartzea beste pentsamenduek jarri ez duten lekuetan. Begirada horrek herri mugimenduaren eraldaketan ekarri duen garrantzia azaltzen du. Feminismoaren begiradak zentzua hartzen du besteen begiraden desbideratzean. Herrigintzan edo ezker mugimendu erradikalean ari garenek kapitalarekiko –eta lanarekiko– gatazkan jarri dugu begirada, feminismoak, berriz, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkan jarri ditu begirada eta arreta. Egungo gatazka ulertzeko arazoaren funtsaren hondoraino joateko pentsamendu oso baliagarria izan daiteke, ez da etxeko atean geratzen. Etxeko atea irekitzerakoan eten moduko bat egon baita. Feminismoak etxera sartzen eta barruan zaudela zure jarduera politikoa jarraitzea planteatzen du.

Azpiazu: Izan ere, feminismoak izendatzen duen subjektu politikoa askoz komunagoa da. Denok sartzen garen eremuan ari da, etxean, zenbaitetan kolektibo batzuk zenbait eztabaidetatik kanpo geratu dira eta ikusezinak bihurtu. Hala-ber, des-hazkundearen eta mugimendu ekologistaren pentsamenduak bi helduleku interesgarriak dira herri mugimenduarentzat, egungo arazoei ikuspegi integral batetik eustea planteatzen dutelako bai estatuarekin bai merkatuarekin dauzkagun gatazkei heltzeko, alde guztiei begiratuz, eta ez alde batzuei soilik.

Feminismoa, des-hazkundera eta ekologismoa egungo egoerari hobe-ki eutsi dioten pentsamenduak direla onartu behar dugu, ongi moldatzen eta beren ikuspegia sakontzen jakin baitute. Areago, feminismoaren ekarpen politikoa eta teorikoa askotan gutxietsia izan direla pentsatzen dugu.

Luxan: Feminismoak arlo pertsonala politikoa ere badela dio. Eta ez

Kalean da otsaileko



aizu!

- Justuri irratia Uribe Kostan
- Gorriak eta beltzak maskaradan
- Jaietan, dendek lan?
- Arditurri, 2.000 urteko zainak
- Motxilaren banda
- Hanna Lanttoarekin euskaraz

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org

da duela 15 urteko baiezipena, askoz lehenagokoa da. Praktikan askotan ez da hainbeste ageri. Eta horrek zerikusia dauka guk herrigintza ikusteko dugu ikuspegiarekin. Mundua ulertzeko begirada osoa landu nahi dugu. Guk ere autodeterminazio kolektiboaz hitz egiten dugu, baina baita pertsonalaz ere. Beraz uztartu ditzagun biak.

Herri mugimendua sistema politiko-ekonomikoaren "parean" jarri eta biak konfrontatzeko lanean ari dela ulertu behar dugu.

Azpiazu: Guri "parean" hitza erabiltzea kosta zaigu. Egungo sistema politiko eta ekonomikoarekin konfrontatzeko parametroez hitz egitea oso zaila da. Geuk ere sistema ekonomikoa, merkantilista eta burokratikoaren logika bere egiten baitugu egunerokotasunean. Sistemaren exigentziak ez dira harena soilik, gureak ere badira. Guk sistemak bizitzari eskatzen dion antzekoa eskatzen baitugu neurri batean, hau da, ordenuan eta paradisu fiskalean bizitzea. Barneratu ditugun logika horiek ukaezinak dira. "Parean" terminoa erabiltzea zaila zaigu, baina era berean, ezin dugu geldirik egon. Botere-guneek gizarte zibilaren kontrako indarkeria eragiten dute, beraz, horien aurka antolatzea beharrezkoa da. Dispersio politikoaren garai honetan elkar gaitzakeen "zentzu komuna" bilatu behar dugu.

Luxan: Egunerokoaren garrantziak balio handia du, zerbait aldatu nahi badugu ingurukoekin ditugun harremanak aldatzen eta zaintzen ikasi behar dugu. Krisi garaian jendarteak duen erronka handiena da bilatzea nola elkartu eta nola lagundu dezakegun elkar. Bizitza bermatzeko zein bizimolde nahi dugun zehaztu behar dugu. Guk merezi eta duina den bizitzaz gogoeta egin nahi dugu, ez dugu nahi presaka bizi dugun eredu hau. Egunerokoa-ri arreta gehiago jarri behar diogu.

Egungo egoera larriak ez al du eragingo jendearengan, apur bat gehiago pentsa dezan?

Azpiazu: Bai. Gainera, garrantzizkoa da egoera hau aukera bezala

ulertzea. Krisialdiak horrelakoak dira. Esaterako, osasun krisialdiak hainbat gauza txar baztertzen laguntzen digute. Orain, krisialdi honen aurretik sortutako baliabide teorikoak aintzat hartu behar ditugu. Honezkero, badakigu ez dela aski sistema finantzarioari kritika egitea soilik, kritika egin behar diogu ere gure mundu ikuskerari, kritika sakona. Bestela, zibilizazioa ulertzeko modu honek ez dauka etorkizunik, ezin dugu jarraitu pentsatzen menpekotasun kontzeptuetan edo hazkunde etengabearen klabetan. Zertaz hausnartu nahi dugun erabaki behar dugu, nola planteatu oraingo egoera. Adibidez, langabezia tasaz besterik gabe hitz egiten badugu, gaizki goaz. Langabe tasak eragiten dio enplegua duenari, baina, gizartearen kezka guztiak enpleguari buruzkoak al dira? Herri mugimenduak bere planteamenduak zabaldu behar ditu, eta krisi larrialdian gaudela ulertu, baina ez soilik langabezia tasa handitu delako.

"Krisia itzela da finantza botereak gero eta urrunago daudelako, gero eta abstraktuagoak direlako"

JOKIN AZPIAZU

Luxan: Zenbait gauzei beste betaurrekoekin begiratu behar diegu, hau da, enplegua gauza bat da eta lana beste bat. Lana jende gehienak egiten du, batzuek enplegua dute —eta kobratzen dute— eta beste batzuek lana egiten dute, baina ez dute kobratzen. Lana egon badago, baina, agian, unea da kontura gaitzen zein enplegu diren beharrezkoak eta zein ez. Adibidez: zaintza kontuetan lana badago jende guztiarentzat, baina kotxe gehiago fabrikatzeak ez du zentzurik.

Azpiazu: Moneta krisiak garrantzi handia dauka bizi garen gizartearen oski. Egoera horretara iritsi ostean, jende guztiak eskuak burura bota ditu. Baina aurretik zeuden krisiak ezkutatzeko arriskua dago.



"Guk ere autodeterminazio kolektiboaz hitz egiten dugu, baina baita pertsonalaz ere". MARTA LUXAN.

Adibidez, etxebizitzaren gaia. Duela zenbait urte Euskal Herrian barra-barra hitz egiten zen etxebizitzaren eskubideaz. Aldiz, gaur egun? Hau da, aldarrikapenak soilik etxebizitzaren esparruari begira egiten segitzen badugu, ez gara ongi ari. Hala, orain, arazoa enplegua denentzat topatzea da, haatik, enplegu bete izatea ezinezkoa dela demostratu da.

Luxan: Gainera gu beti ez gaude menpeko kokapenetan, gu, pertsonok, mugitzen gara. Batzuetan menpekoak gara eta bestetan menperatzaileak, hori argiago izan behar dugu, baita gure jardueren abiapuntuan ere. Guk ere merkatuaren logika barneratua daukagu, batzuetan alde batean gaude eta bestetan beste aldean, konplexutasun horretan mugitzen ikasi behar dugu.

Azpiazu: Krisi hau ez zen 2008an hasi, askoz lehenagotik heldu da. Eta ez du soilik zerikusirik alde finantzarioarekin edo moneta krisiarekin, aurretik zetorren krisia beste krisialdi itzelarekin iritsi zen: bizitzaren zentzua harrapatzeko krisia, parte-hartze politikoaren krisia, erabakiak hartzeko herritarrok dugun krisia, baliabideen krisia. Hain zuzen ere, krisia itzela da, finantza botereak gero eta urrunago daudelako, gero eta abstraktuagoak direlako. ■



Jaione Arregi, interpretea Europar Batasunean

«Zabaltzen ari den iritzia da hizkuntza aniztasuna ez dela batere pragmatikoa»

Itzulpengintza eta Interpretazioa karrera deskubritu zuenean bere bidea argi ikusi zuen 35 urteko zaldibartarrak: “Hizkuntzen artean ibiltzea, hizkuntzekin jokatzeko, hori zen nahi nuen”. Komunikazioa maite du Arregik, euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, italiara eta portugesa dakizki eta 2000. urtetik Europar Batasunean egiten du lan, freelance moduan.

Testua eta argazkia:

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Zein esparrutan erabiltzen da euskara Europar Batasunean?

Eskualdeen Batzordean erabiltzen da, tokiko botereak biltzen diren batzordean (alkateak, diputatuak...); eta batzuetan, baita Ministroen Kontseiluan ere. Kontseilu honetara Estatu bakoitzak bere ordezkaria bidaltzen du eta Espainiaren kasuan erkidego guztietatik norbait joaten denez, Euskal Herriari egokitzen zaionean gerta daiteke euskaraz hitz egitea, nahiz eta oraingo Gobernuarekin apenas gertatzen den. Harrituta geratu ginen adibidez Gasteizko alkate Javier Marotok euskaraz egin zuelako hitzaldia Batzordeko azkeneko osoko bilkuran. Dena den, eskatu, beti eskatzen dute interpretea, euskara erabiltzeko protokoloa 2005ean sinatu zenetik. Hasiera haietan, Jose Maria Muñoz Kanpo Ekintzarako arduraduna zen euskaraz mintzatzen zena, euskaraz oso ondo egiten du eta atsegina zen berarekin lan egitea. Orain ez dute euskara hainbeste menperatzen, eta modan dagoena da euskaraz “egun on” esan ostean gaztelaniara pasatzea, euskarazko esaldiren bat tartekatuz, eta hori guretzat oso nahasgarria da, edo euskaraz esandakoa errepikatzen dute gaztelaniaz eta entzuleak gauza bera birritan



entzuten du. Irlandarrek ere egiten dute: gaelikoz hitz batzuk, eta ingelesera salto. Hizkuntzaren erabilera batzuetan sinbolikoa besterik ez da, ez da komunikazio tresna, eta hori penagarria da.

Beste pertsona batek eta biok interpretatzen dugu euskaratik gaztelaniara edo beste hizkuntzetatik euskarara.

Zein leku dute hizkuntza gutxituek EBn?

Batez ere hizkuntza ofizialak erabiltzen dira eta euskarak ez du estatus hori han, hizkuntza gutxituek oso leku txikia dute. Eskualdeen Batzordean euskaraz gain galegoa, katalana-eta hitz egiten dira, baina adibidez bretoa, okzitaniera eta Frantziako Estatuko hizkuntza gutxituak ezin dira erabili, herrialdeak duen politikaren arabera delako. Eta Parlamentuan ezin da hizkuntza gutxituetan hitz egin, baina nire ustez Parlamentuan baimendu beharko lukete, berez Parlamentua delako EBko erakunde demokratiko bakarra, hauteskunde bidez osatutako bakarra. Izaskun Bilbao bezalako politikariak badabiltza gaia mugitzen, baina Madrilgo Senatuan gauza nola dagoen ikusita, imajinatu Europako Parlamentuan.

Azkenean, hizkuntzen gaian, eta hizkuntza ofizialez ari naiz, ez gutxituez bakarrik, zabaltzen ari den iritzia da aniztasuna ez dela batere pragmatikoa, batzarrak asko oztopatzen dituela, denek dakigula ingelesez. Hizkuntza gutxituen aldarrikapenak hor sartzea are zailagoa da, eta horri krisiaren testuingurua gehitu behar diogu.

"Parlamentuan ezin da hizkuntza gutxituetan hitz egin, baina baimendu beharko lukete, EBko erakunde demokratiko bakarra berau delako"

Hizkuntzekiko sentsibiltate gutxi dagoela iruditzen zaizu?

Holandan adibidez, ingelesa dute bigarren hizkuntza eta ez dute inongo arazorik ingelesez aritzeko EBn, ez da ez zaiela beraien hizkuntza axola, baina ez dute halako sentsibiltaterik; zure hizkuntza egoera normalean hitz egin badezakezu, zure herrialdean normalizatua badago, hizkuntzaren aukera ez da arazo. Desberdina da gurean bezala hizkuntza bat besteari gailentzen zaionean. Adibidez Madrilgo Senatuan Estatuko hizkuntza koofizialak onartu zituztenean, lagun espainiar askok, aurrerakoiak izanagatik, ez zuten ulertzen: "Ez da beharrezkoa, denek dakigu gaztelaniaz, zuk gaztelaniaz baldin badakizu zertarako behar duzu beste hizkuntza batean egin?", esaten zidaten. Sentimenduekin lotuta dago eta jendeak ez du ulertzen zer esan nahi duen aukeratu ahal izateak.

Aldi berean, azpimarratu beharra dago EBren politika dela hizkuntza aniztasuna bultzatzea eta Estatu kideetako delegatuek haien ama-hizkuntza erabili ahal izatea, hori adibidez ez da beste nazioarteko erakundeetan gertatzen, nik dakidala beste inon ez daude 23 hizkuntza ofizial.

Oso ezberdina al da itzultzea eta interpretatzea?

Askotan nahastu egiten ditu jendeak, ni itzultzailea ere banaiz, baina itzulpena idatzizkoa da eta

interpretazioa ahazkoa. Hainbat interpretazio mota daude: aldeberekoa, kabinetan egin ohi duguna; lotura gisa funtzionatzen duena, elkarriketaren batean bi norabideko itzulpena eginez; eta esan ostekoa. Esan ostekoa ez da asko ikusten hemen, hizlariak kontatu duenarekin koadernoan notak hartu eta diskurtsoa ematen da gero.

Aldibereko interpretazioa da zailena?

Bereziena behintzat bai. Entzun, analisisia egin, itzuli eta beste hizkuntza batean bota, hori dena batean egiteak kontzentrazio maila handia eskatzen du, arreta bi lekutan jartzea eta informazioa oso azkar prozesatzea; egia da jende asko, itzultzaile izanagatik, ez dela gai. Ordu erdiko txandetan egiten dugu lan, baldintza onetan eta topera egoteko frogatu baita hori dela neurria. Guk ez ditugu hitzak errepikatzen, ideiak komunikatu behar ditugu. Interpretazio ikasleek adibidez uste dute hitz guztiak itzultzea dela interpretatzea, eta ez dira konturatzen hainbat era dagoela gauza bera kontatzeko, ideia dela igorri behar dena, sintesian: zer esan nahi du hizlariak horrekin?

Esaten ez duena interpretatzen ere jakin beharko duzue orduan...

Beti dago atzean asmoren bat, zerbait saltzea, konbentzitzea, argudio kontraesankorrekin publikoa nahastea... Gure lana da aldez aurretik testuingurua zein den aztertzea –batzarrean zein gai jorratuko diren, parte-hartzaileek zein jarrera duten, herrialde bakoitzaren interesak...–. Gauza asko inplizituak dira eta aldez aurreko dokumentazio lana oso garrantzitsua da.

Egunero hasten den lana da eta hori da niretzat bereziena: aldiro, darabilzkidan hizkuntzak lantzeaz gain –bizirik mantendu behar dira etengabe–, gaiak landu behar dituzu, ez dakizu zehazki hizlariak zer esango duen eta adrenalina puntua ematen dizu horrek, azentuak, jendearen hitz egiteko modua... kontrolatu ezin dituzun aldagaiak dira, egunero dago urduritasun puntu hori.

Asko jakingo duzue azkenerako EBn jorratzen diren gaiez.

Gauza askori buruz zerbait dakigu, pixka bat denetik. Batzarrak oso teknikoak direnean ikastaroak egiten ditugu edo azalpenak ematen dizkigute aurretik, orain ekonomi krisia dela-eta *supbrime* eta halakoen inguruan adibidez. Terminologia bakarrik ez, kontzeptuak menperatu behar dira, hitzen bat ez ulertzea egunero gertatzen delako, baina gaia menperatzen baduzu, osatzen joango zara informazioa.

Alde emozionala interpretatzen al da? Hitz egokiak nola aukeratzen dituzue tonua, espresioa... igortzeko?

Oso emozionala bada hori adierazten saiatzen gara, bai. Hitzak aukeratzeko garaian hizlariaren azalean jartzen gara nolabait, interpretea azkenean hizlaria baita, lehenengo pertsona hitz egiten dugu. Oreka kontua da azkenean, tonua mantenduz, mezua transmitituz eta edukia ahalik eta modu zintzoenean emanez. Hirugarren pertsona aldentzeko erabiltzen dugu: hizlaria tronpatu bada edo biraoa bota badu, "hizlariak dio" moduko formulak erabili daitezke. Hizkuntza ez berbala ere oso lagungarria da, gorputzarekin hizlariak zer adierazten duen, ironia harrapatzeko, benetan adierazi nahi dena... Hor arazoa da finlandiarrak, daniarrak-eta oro har oso zurrunkak direla, beharbada zerbait barregarria esaten ari dira, baina serio daude.

"Holandarrek ez dute arazorik EBn ingelesez aritzeko. Axola zaie beren hizkuntza, baina zure hizkuntza normalizatua badago, hizkuntzaren aukera ez da arazo"

Beraien larruan jartzen zara beraz. Ez al duzu inoiz tentaziorik izan hitzak moldatzeko?

Kar, kar, kar. Batzuetan bai, baina ezin da, gure kode etiko eta deontologikoaren kontra egitea litzateke. Ezin da informazioa kendu, gehitu edo moldatu, nahiz eta urte asko daramatzatenek beraien zantzuak uzten dituzten. Bazegoen adibidez

Parlamentuan interprete bat botazioak loteria moduan eskaintzen zituen. Printzipioz inpartzialak gara, neutroak, baina aldi berean nik aukeratuko ditudan hitzak ez dira zuk aukeratuko dituzunak, emakumea naizelako eta zu gizonezkoa, nik neure mundu-ikuskera dudalako... Erakundeetako diskurtsoak dio gu kanala baino ez garela, informazioa jaso eta botatzen duena, interpretea ikusezina dela esaten zen orain arte, baina pertsonak gara eta gure arrastoa uzten dugu nahitaez.



Nolako diskurtsoak izan ohi dira?

Gaitza da hizlari on bat aurkitzea, hemen inguruan gainera, nire ustez, oro har ez dugu hizlari ona den politikaririk, ez dugu eredurik. Jendeak asko daki gaiei buruz, baina hitz egiten... Zaila da jendaurrean hitzaldia ematea, ideiak modu egituratuan garatuz, zehaztasunez. Batzuetan, diskurto oso txarra bada, jantzi egiten dugu guk. Eztabaida dago hor: jatorrizko diskurtsoa txarra bada, apaindu behar duzu ala diskurtsoak utzitako sentsazioa igorri? Pixka bat jantzi egiten duzu azkenean, gutxienez modu ulergarrian eman.

Nolakoa da kabinako lana?

Bizpahiru pertsona egoten gara kabina bakoitzean, eta gaudenon artean ahalik eta hizkuntza gehien kontrolatzea da helburua. Talde lana dela azpimarratzea gustatuko litzaidake, nire ordu erdian datu edo hitzen batek ihes egin badit ondoan ditudalako besteak laguntzen, mikrofonoa isilarazteko *mute* botoia sakatu eta gure artean hitz egin dezakegu. Gertatu izan zaio hainbat interpretari, *mute* zapalduta dutelakoan hitz egin... eta mikrofonoak irekita izatea.

Gauza barregarrienak hitz-jokoe-kin eta bigarren zentzuko esaldiekin

“Jatorrizko diskurtsoa txarra bada, apaindu behar duzu ala diskurtsoak utzitako sentsazioa igorri? Eztabaida dago hor”.

gertatu ohi dira, nahasteko aukera dago beti. Umorea interpretatzea zaila izaten da. Holandarrek ohitura dute euren txisteak zuzenean nederlanderatik ingelesera itzultzeko, hitzez hitz, eta ez dute inongo zentzurik. Ikusten duzu beraiek baino ez dutela barre egiten eta esan behar duzu “hizlariak txiste bat kontatu du...” edo holakoren bat, eta ahal baduzu baliokide umoretsuren bat sortu. Eta futbol eta errugbi emaitzen jakinaren gainean egon beharra daukagu, beti tartekatzen dituztelako “zure herrialdeak nirearen aurka galdu du” eta halako txantxak.

“Interpretea ikusezina dela esaten zen orain arte, kanala baino ez, baina pertsonak gara eta gure arrastoa uzten dugu”

Zenbateraino ikasi daiteke ama-hizkuntza ez den hizkuntza bat?

Ikasi daiteke, baina ez ama-hizkuntzaren mailan. Interneti esker hizkuntza guztiak eskura ditugu gaur egun, baina hizkuntza bat benetan

ikasten da bertakoein hitz eginez, hizkuntzaren barne-ezagutza beraiek emango dizutelako, ñabardurak, esaera jatorrak... Gure lanak eskatzen du hizkuntzaren logikan eta pentsamenduan sartzea, hizkuntzak atzetik kosmobisio bat daukalako eta hori barneratzeko bertatik bertara ezagutu behar da. Horregatik nahiko nomada da gure lana, ikasitako hizkuntzak adina herrialde bisitatu behar dituzu, inbertsioa eskatzen du horrek... Zaila da nork bere hizkuntza menperatzea, erregistro guztiak menperatzea, beraz gainerakoak... Horregatik dago hain interprete gutxi, nahiz eta lehen zuen kutsu elitista galdu duen –diplomatikoen seme-alabak izan ohi ziren interprete, gerrako umeak, jende oso kosmopolita...–.

Zein da interpretatzeko hizkuntzarik zailena?

Dakizkidanetatik, ingelesa. Hizkuntza oso trinkoa da, hitz gutxi eta esanahi askorekin, eta asko aldatzen da. Pentsamendu anglosaxoia zailagoa egiten zait, ez du latinoen eskema jarraitzen eta ez dut erreferentziarik. ■



Babeslea: Errenteriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@errenteria.net



ERRETERIAKO UDALA



UDAL EUSKALTEGIA

Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net

“Lege beharrik ez dago; gauza anitz egin daitezke plantan dagoen sistemaren barruan”

BAIONAKO UNIBERTSITATEAN, otsailaren 3an, *Tokiko hizkuntzak: jarraipena ala etena* topaketak izan ziren. Besteak beste Michel Alessiok hartu zuen parte, Frantsesa eta Frantziako Hizkuntzetarako Batzordeko ordezkariak. Izenburuan idatzi ditugun hitzak aipatu zituen Alessiok, bere garaian hizkuntza gutxituen aldeko legea eskatuta, Frederic Mitterrand Frantziako Kultura ministroak erabilitako hitzak. Legeak baimentzen dituen

eta oraingoz lantzen ez diren eremuak jorratu behar direla esan zuen Alessiok, eta herriko etxeetan bilkurak eta aktak euskaraz egin ahal direla jarri zuen adibide. Entzuleen artean zen Jakes Bortairu AEK-ko kidea. Hala mintzatu zen: “Legeak ez badu baliorik, ulertu beharko dugu hizkuntza gutxituek bizirik iraun nahi badute estatutuen baten beharra dutela”. Eta zera gaineratu zuen: “Mingarria da, dena dutenen partetik (konstituzioa, legea, dirua) gauza anitz egin daitezkeela entzutea. Sumintzekoa, duenak ez duenari erraten diolarik zer egin dezakeen; faltsukeria erakusten du”.

BAHEA

Hanna Lantto euskara irakasle finlandiarrak *Aizu!* aldizkarian esanak: “Euskal Herriko jendeak izugarrizko konplexuak dauzka euskaraz hitz egiteko. Politikariei euskara traketsa erabiltzen dutenean barre egiten badiegu, mezua bidaltzen diegu euskaldunei eta euskaraz ikasten ari direnei: maila jakin bat lortu dutenek baino ez daukate euskaraz egiteko baimena. Gainera, batua artifizia delako eta euskalkia ez dela jaso esaten dute. Niri asko barkatzen didate atzerritarra naizelako, baina behin baino gehiagotan esan didate bizkaieraz egiteko batuaz egin dudanean eta alderantziz. Giro honetan errazena gatzelaniara jotzea da”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Murritzketen eta azpiegitura handien kontra

Joan den astean Hego Euskal Herrian hainbat mobilizazio izan ziren, Donostian eta Bilbon (azken hau bertan behegeratu zen eguraldiagatik), kapitalismoak bere gobernuen bidez inposaturiko murrizketa sozialaren kontra eta azpiegitura handien kontra. Sindikatuek, gizarte taldeek eta alderdi politikoek –batez ere ezker abertzalekoak– deitu zuten haietara. Aste honetan, hilaren 11n, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan manifestazio gehiago izango dira erreforma neoliberalaren eta PPko Gobernuak ezarri nahi duen zentralizazioaren aurka. Mobilizazio horiek testuinguru berezian egingo dira, Zubietako errauskailua gisako azpiegitura handiek egurren jaso baitute auzitegietatik. Usurbilgo Udalarik, Gipuzkoa Zero Zaborri eta mugimendu sozial eta ekologistek arrazoia eman die epaitegiari. Alternatiba baten alde lanean ari dira taldeok, merkeagoa, jasangarriagoa, osasuntsuagoa eta lanpostu gehiago sortuko dituen.

Joan den asteko eta aste honetako mobilizazioak, izan murrizketa sozialaren kontra nola azpiegitura handien kontra (Pasaiako Portua, AHT, autopista handiak, errauskailua...), “merkatuen”, espekulazioaren, eraikuntzaren eta gutxi batzuen negozioaren zerbitzura dagoen ekonomia kapitalistaren kontrako borrokan oinarritzen dira. Mobilizazioek bestelako eredu ekonomiko eta soziala aldarrikatzen dute, subiranotasunean, demokrazian, aberastasunaren banaketan eta naturaren errespetuan oinarritua. Espainiako Estatuan beste dinamika bat dago, Madrilgo egunkari bateko marrazkigileak ederki asko salatua: “Murrizketa sozialen aurrean herritarrek isilik, eta aldez, estaldioetan oihuka”. Zorionez, Euskal Herrian badago sektorerik dinamika horrekin hautsi nahi duena.

Juan Mari Arregi



Erramun Turutarenak *Turutene* blogean esanak: “Eta galdetzen dut zergatik ez den ETB2-ko *prime-time*-a euskara normalizatzeko helburuarekin erabiltzen. Zergatik ez diren ETB2-rako saio elebidunak produzitzen. Zergatik euskal irrati telebistan ez diren zuzenean euskaraz egindako galderak gazteleraz erantzuten edo alderantziz. Zergatik ez dugun ETB2 esperimentazio elebidunerako erabiltzen. Zergatik ez dugun ETB2 ETB-L-2 bilakatzen”.

Manuel Arregik *sustatu.com*-en esanak: “Gipuzkoako, zer esanik ez Euskal Herriko, batez bestekotik gora gabiltza Urola bailaran euskararen arlo guztietan, baina lorpen hori ‘berez’ eskuratzen dugula iruditzen zait, ahalegin berezirik egin gabe, beste hainbat erdalgunetan ez bezala. Baina baditugu hainbat aje ‘berez’ sortu zaizkigunak edo sortu ditugunak, agian, batere oihartu gabe”.

Mugimenduak

ETA-K urriaren 20an bere jardun armatuaren amaiera jakinarazi zuenetik bost hilabete ere ez dira pasatu eta, begirada azkar batean, badirudi bake prozesuarenak ez direla gauza handirik mugitu: funtsean, herritarrek sinetsi dute ETArena amaitu dela eta bizitzak normal jarraitzen du; ezohikoak batez ere krisiaren eskutik datoz, iragarritako denborale moduan, bata bestearen atzetik.

Baina, aldi berean, normalizazio politikoaren azarna ugari ikusi eta dastatu ere egiten da: ETaren biolentzia desagertu da, beldurra ere bai mehatxatu askoren erraietatik, Bildu eta Amaiurren jarduerak politika normal egin daitekeela irudikatzen dute, auzi berriekin lotutako atxilotarik ez edo gutxi, tortura salaketak ere ez...

Baina bake prozesua ez da aire-ratzen, eta gatazkaren ondorio askok hor jarraitzen du, nork eta nola helduko zain: presoan arazoa, Sorturen legeztatzearena, ETArekiko elkarrizketak, iraganeko epaiketak eta espetxeratzeen jarraipena, biktimen auzia... Hori guztia, orain igeritokian ura badagoela inongo zalantzarik ez dagoenenean. Kontua da ea mantenuaz arduratzen direnek ur korrante zirrikiturik utzi ote duten ura putzuan usteldu ez dadin.

Eta ur korrante txiki bat bederen ikusten da, mugimenduak eta adierazpenak badira, ez gura besteko azkartasun eta ordenean, baina piszinara salto egiteko gogoak sumatzen dira han-hemenka. Brian Currin eta bere taldea lanean ari direla ikustea bada animoak emateko modukoa, lehen ere talde horrek bere fruituak eman dituelako eta nazioartearen parte hartzea funtsezkoa delako halako prozesu



gaitz batean, batez ere ura ustelduko ez dela bermatzeko. Ezker abertzalea gero eta erosoago sentitzen da normalizazio politikoaren eszenatokian, kudeaketa prozesu konplexuetan murgildua eta indar metaketa soberanista bake prozesuaren akuilu onena dela barneraturik.

EAJk ere argi du bere apustua, barne egoera kontrolatu batekin, edozeinekin akordioetara iristeko bere gaitasun eta trebezia erakutsi nahi du PPrekin behin eta berriz lotzen ari den eta lotuko dituen akordioekin. Bakegintzan ere bere lekua hartu du eta PP eta ezker abertzalearen arteko zubigintza jorratzeko prest dago, gai hau Ajouria Enera itzultzeko giltzarri izango dela jakitun.

PSE-EE ere argiago ari da bere jarrerarekin, presoan hurbilketa eskatuz esate batera, eta elkarrizketetarako bere jarrera argiago mahai gaineratuz. Hurrengo urratsa ezker abertzalearekin instituzionala bakarrik ez litzatekeen bilera publikoa litzateke logikoa. 2013ko hauteskunde autonomikoei begira, gainera, jarrera malgutzen jarraituko du, PSOEren berritze prozesuan izatea eta bakegintzaren aurrean jarrera eraikitzailea erakustea azken bi hauteskundeetan

izandako porrotak gainditzeko lagungarri izango direlakoan. Gaitza du, baina bistan da egun dituen heldu leku onenak direla, ekonomiaren alorrean onurak baino oztopoak etorriko zaizkio eta.

Baina bide hau egin ahala, PPren diskurtsotik ere aldentzea egokitzen zaio. Eta nola aldendu gobernu ituna hautsi barik? Gaitza, baina hori bere esku baino Basagoitiren

alderdiaren esku dago eta honen sostengua gero eta hauskorragoa da. Ez litzateke batere harritzeko uda aurretik edo osteko lehen hilabeteetan gobernu haustea. Hauteskunde aurreko haustura horiek edozelako koalizio gobernutan askotan gertatzen dira, eta honetan orain are eta errazagoa gerta daiteke biek jasan duten ETaren biolentziaren zementua desagertu denean.

ETA PP? Espetxe politikan aldaketak eragingo dituela onartu du eta ez da gutxi. PPk bestela ere hainbeste arazo dituenen krisi egoerarekin, ez luke zentzurik bake logika baten testuingurutik kanpo aritzea, EAEn bederen ez lioke ezer ekarriko. Agian, hemen baino Parisen ari gara ikusten Mariano Rajoyren keinuak, Frantziaren presoan hurbilketa-erikiko hartutako neurriak nekez uler baitaitezke Frantzia eta Espainiaren ohiko elkar lanetik kanpo.

Borondatezko irakurketa baiko-rra ere izan daiteke hau guzti hau, jakina. Kasurik onenean, gainera, mugimenduek ura ez dela usteltzen ari adierazten dute, eta ez txorrotatik euskal herritarrok behar dugun bake prozesu zuzen eta sendoa aterako denik.



Noiz erasoko dion Israelek Irani? Duela bi urte

Zuzeneko erasorik ez da gertatu oraino, azken urteotan behin eta berriro iragarritakoa gezurtatuz. Aldiz, AEBak eta Israel gerra sekretuan ari dira Iranen kontra, uranioa aberasteko programetan buru diren zientzialarien hilketak lekuko. Gerra ez da osorik lehertzen baina bakerako edozein urrats deusetan geratzen da nahasmenean korapilatuta.

MOSTAFA AHMADI ROSHAN 32 urteko gaztea bosgarrena izan da 2007tik gerra zikinean hil dituzten zientzialarien zerrendan. Seigarren bat doi-doi atera zen bizirik, atean lapa-bonba ipini ziotela oharturik ko-txetik salto eginda. Denak ziren Teherango Gobernuarentzako energia atomikoa garatzen ari diren ekiopetako buruak.

Nork hil dituen? AEBek zerikusirik ez dutela adierazi du Hillary Clintonek. Aldiz, Israelen erantzukizunaz, AEBen eta beste potentzia handien zerbitzu sekretuen laguntzarekin edo gabe, inork gutxi egi-ten du duda.

*The New York Times*en idazten duen Scott Shane kazetariak Patrick Clawsonengana jo zuen galdezka; hau zuzendari da Washingtongo *Institute for Near East Policy* erakunde-
dean Iranez okupatzen den sailean, lobby israeldarrari loturik. “Sarritan galdetu didate –derantzu Clawsonek– ea noiz erasoko duen Israelek Iran. Eta nik diot: duela bi urte”.

Clawsonen eta Israelen aldeko beste batzuen ustez, sabotajeak eta hilketa selektiboak dira bide egokia, ezkutuko guduak alegia, eta ez airezko eraso nabarmenak. “Hone-lakoek erreakzio nazionalistak eka-
rriko lituzkete Iranen, erregimena sendotuz. Ezkutuko erasoekin, ordea, Irani ikusarazten zaio zein

garesti aterako zaion arma nuklea-
rrak eskuratzea”. Gerra martxan ote dago, beraz, eta irtenbide nego-
ziatuen txanda bukatu-rik?

*Le Monde Diplomatique*n Ekialde Hurbilaren jarraipen estua egiten duen Alain Greshen analisisian, berehala eraso nahiko lukeen Israe-
lekin lerratuta legoke Europar Batasuna, Nicolas Sarkozy buru: “Jarrera itxienean dago, elkarrizke-
ta erraztu eta laguntzen saiatzeko orde-
z. Eta du hitz bat entzun nahi arma nuklearrik gabeko Ekialde Hurbilaz, horrek ekarri beharko lukeelako Israelek bonba atomiko-
ari uko egitea”.

Barack Obama jarrera anbiguo-
goan legoke. Horrela interpretatzen ditu Greshen buruzagi yankiek aste-
tik atera egiten dituzten deklarazio kontraesankorrak: gaur diote Iranek badaukala bonba atomikoa, bihar ezetz... Isilpean Iranekin elkarrizke-
ta hasi nahiko lukete. Zeharkako diplomazia horretan ulertzen du Greshen urtarrean Ali Larijani Teherango parlamentuko presiden-
teak Turkiara egindako bidai-
a, non adierazi bai-tzuen mendebaldeko potentziekin negoziatu nahi dutela.

Galdera orduan da: zientzialari irandarren hilketak Israelek bakarka burutu ditu? Hori eta gehiago ira-
doki du berrikitan *Foreign Policy* aldizkari ospetsuan Mark Perryk,

The Foundry guneari hartutako argazkian, ama-semeak Teherango karrika batean Irango armadak dauzkan misilen kopia baten aurrean pasatzen; atzean ageri da Irango buruzagi gorena den Ali Khamenei aiatolaren erretratua. Aditu batzuen ustez, Iranen kontra AEBek eta Israelek, bakarka zein elkarrekin, ageriko eraso militarrik orain arte egin ez badute, emaitza onak baino gehiago txarrak aterako dituzten bel-
dur direlako da: Teherango armadak Ormu-
zeko itsasoa blokatu lezake petrolio trafi-
koa paralizatuz, herritarren sentimendu nazionalistak gogortuko lituzkete, arma nuklearrak eskuratzeko erabakia sendotu-
ko. Horregatik, ezkerretik AEBek eta Euro-
pak Iranen ekonomia ito nahi dute honen petrolio esportazioak oztopatuz, eta aldi berean eskubitik Israel ezkutuko erasoak burutzen ari da Iran barruan bertan Junda-
llah bezalako taldeak erabiliz.

CIAko agenteen hitzak bilduz. Ale-
gia, Mossad Israelgo zerbitzu sekre-
tua baliatu dela CIAko jendeaz bere
estrategia aurrera ateratzeko.

Iran barruko gerra zikina israel-
darrek bideratu dute bertako talde
armatu bat erabiliz, Jundallah. Ez
nahastu Mujahidin talde ezkertia-
rrekin: Jundallahk Balutxistango
suniten defentsa aldarrikatzen du.
AEBek talde terroristatzat daukate
eta diote Pakistanen duela babesa.

CIAko zenbait agentek salatu
diote Mark Perryri Mossadek Jun-
dallahko militanteekin izan dituen
harremanetan CIAkotzat aurkeztu
dituztela beren buruak. Washingto-
neko buruek utzi egiten diete israel-
darrei, baina CIAko kideak urduri-
tzen dira *false flag* edo gezurrezko
banderapean egindako operazioo-
kin. Azkenean Mossadekoek egiten
dituzte txarkeriak eta etsaiaren
aurrean CIAkoak geratzen errudun.

Akordatzeko 1988 hartaz?

Egunkarietan nazioarteko atala
arretaz irakurtzen duen herritarrak
motiboak ditu kezkatuta egoteko,
Iranen eta Mendebaldeko poten-
tzien arteko tentsioa noraino heldu
den ikusita. Zer gertatu behar du
Pakistanetik hasita Libanorainoko
eskualde zabalean, agian etxe ata-
rian daukagun Marokoraino, Iran
bonbaz erasotzen badute?



Hala ere, korapiloak askaezinen dirudienean konponbiderako hari-muturra harrapatzeko itxaropenez dihardute lanean batzuek. Horieta-koa da Paul Rogers, Bradfordeko unibertsitatean Bake Ikasketen Sai-leko irakasle denak, *Oxford Research Group*eko kide.

Rogersek *Open Democracy* gunean plazaratu du *The Iran complex: why history matters*. Saiatzen da nuklearraren aldeko Iranek egin hautuaren sustriak aztertzen, horiek ulertzeak gerra saihesten lagundu dezakeela-koan. Hona Rogersen argudioak.

Israelgo askok eta AEBetako belatzek berehala nahiko liokete eraso Iranek dauzkan instalazio nuklearrei. Obama ahultzat daukate, ez erasotzeaz gain Irani baimentzen

diolako Iraken gero eta indar handia-go hartzea. Baina horiek guztiak ez dira ohartzen, Rogerrentzako, Iranen nuklearraren aldeko parioa ez dela agintarien kontua soilik.

Lau mila urtez Persiak bere kultur independentzia atxiki du. Iraniar askorentzako gaur 80 milioi biztanle dituen herrialdea munduko zibilizazioaren erdigunea izan da. Europarrek ez zituzten inoiz kolonizatu. XX. mendearekin modernizatzeko bidari ekin zioten, baina atzerritarrek oztopatu zieten: 1925ean Reza Shah Pahlavi enperadorea ezarri zieten britainiar eta amerikarrek; 1953an MI6 eta CIAk hondoratu zuten Mohammad Mossadegh, petrolio kontrolatu nahi zuelako.

“Sentimendu hauek berotu zuten 1978-79ko iraultza. Historiaren ondorioz, Iranen kultura politikoan nahasten dira auto-konfiantza eta segurtasun falta. (...) Herrialdeak nuklear zibilean egin apustua modernitate ikur bihurtu da, eta ez dute erraz baztertuko, ezta Fukushima ondorengo giroan energia nuklearra atzeraka ikusita ere”.

Giro horretan garrantzia berezia dauka Guardia Iraultzaileak. Hau egon zen 1988-88 gerran Saddam Hussein aurre egin zion armadaren lehen larroan. Gaur erakunde horren buruzagitzan daudenak gerran soldadu gazteak ziren eta orduko esperientziak oroitu dira.


1988ko martxo apirilean irandarrak gerra krudel hura irabazten ari zirenean, AEBk sartu ziren Saddam Iraki laguntzera. Bi gertakariok leku-ko. Bata, Saddam Husseinek arma kimikoz eraso suen Kurdistango Halabja herria, 3.000 jende hilez; Reaganen administrazioak lortu zuen munduak garrantzia handiegia ez ematea. Eta bigarrena, *tankeen gudua* bukatzeaz zelarrik, AEBen itsas armadak eraso zien Iranen ontzi urrirei, hiru hondoratu eta petrolio plataforma pare bat suntsituz. *Propina* moduan, uda hartan USS *Vincennes* pakebotak Airbus iraniar bat lehertu zuen airean, 290 bidaiari hilez.

Bi hamarkada pasata, gertakizun horiek eragindako fidakaiztasuna ikusten du Rogersek Iranek AEBekin ezein negoziaketa mamitzeko oztopo nagusi: “Konfiantza eraikitzea derrigorrezkoa baita bakezko konpromiso baterako”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Santi Leone

Gazteluak

Turista izatea lotsagarria da. Edo lotsagarri sentitzen dugu, eta dosi txikietan baizik ez dugu turista izatea onartzen. Egiazko turistak, turista osoak, ondokoak izaten dira, bertzeak, itxuraz gure antzekoak izan baina barnean (guk badakigu) gu ez bezalakoak direnak: halako tokitara joan ginen oporretan, baina turistiko-egia iduritu zitzaigun; edo halako museotan ez genuen sartu nahi izan, turistaz mukuru zegoelako (hondar esaldian, irakurle maitea, nazka puntu batekin ahoska ezazu turista hitza).

Turismoa faltsukeria hutsa da, fikzio hutsala, eta, horregatik, kilikak eragiten dizkigu pentsatzeak eskuar dugula egiazko esperientzia zirraragarriren bat. Hoteletan gotortuta, alde zurretik prestaturiko ibilbideetan katigaturik, zapaltzen dituen tokietako egiazko biziak ihes egiten dio turistari. Izan ere, bidaietatik, turista izatetik gelditu eta halako benetakotasuna (esperientzia *keitsch* hori) bizi izan genueneko izaten dugu oroitzapen kuttunena: bakarrik pasieran ibili eta (demagun) Erromako auzo batean jendea mandatuak egiten ikusiz hotzikara sentitu eta bidaiariaren moztorra jantzi uste izan genueneko.

Turismoa ahanzturarako gonbitea ere bada. Gida turistikoetan, historia edertu eta dotoretu egiten da, gatazkak samurtu eta ertzak leundu. Bisitariari informazioa eman behar baitzaio, baina haren oporrak mikaztu gabe: ahaztu, beraz, historiako etsaigoak, atzendu iraganeko gerlak eta gaurko desadostasunak. Ongi pasatzera etorri zara, ez politika ikastaro bat egitera.

Fiturren, Yolanda Barcinak gazteluen ibilbidea aurkeztu berri du, kanpotarrak Nafarroara erakarri nahian edo. Adierazi zuenez, aurtengo aukera probestu behar dugu erakusteko gure historiaz harro



JOSU SANTESTEBAN

gaudela. Izanen da ibilbide horren kontura eskandalizatuko denik; ni, ordea, nago gazteluen ekimen horrek islatuko duela hobekien Nafarroako gobernuan historiaren gainean duten ikuspuntua.

Imajina dezagun: hiru dataren bidez (1212, 1512, 2012), narrazio historiko zirritu gabea eskainiko zaio bisitariari: lehen hartan, nafarrek gainerako espainolekin batera birkonkistan funtsezkoa izanen zen garaipen batean parte hartu zuten; bigarren, Nafarroak azkenean bat egin zuen Espainiarekin; aurtengo honetan, mende luzeetako espainiarta-

sun hori ospatzeko tenorea ailegatu da. Narrazio perfektua, beraz. Eta, turismoaren kanonek eskatzen duten bezala, ahantziak geldituko dira barne gatazkak, isilaraziak desadostasunak, baztertuak ikuspuntu alternatiboak.

Antola lezaketan kongresu bakar batek ere ez luke hain garbi adieraziko UPSNko agintarien ikuspegi historikoa: iragana erraz irensteko goxoki bihurtu beharra dago, denbora pasa etorriko diren kontsumo azkarrerako.

Izanen da naski kontrabertsioa aurkeztuko duenik, turista izaerari uko egiten dioten horiek bezala bertze-


lako auzoetara egiaren bila abiatuko denik. Nik, ordea, aski nuke baten batek, bidaiariaren benetako esperientzia (ezinezko) horren gibeletik ibili beharrean, aurkeztuko diguten bertsio ofizial hori hartu eta piezaz pieza deseginen balu. Ez hainbertze bertsio horren kopia negatiboa osatzeko eta bertze kontakizun josturarik gabea eskaintzeko, baizik eta narrazio (turistarena izan ala bidaiariarena izan) perfektu guztien izaera tranpatia erakusteko. Gure kontakizuna izan dadila memoriaduna eta akastuna, zuloz betea, etengabe eztabaidatua. ■



«
Antola lezaketan kongresu bakar batek
ere ez luke hain garbi adieraziko UPSNko
agintarien ikuspegi historikoa: iragana erraz
irensteko goxoki bihurtu beharra dago,
denbora pasa etorriko diren
kontsumo azkarrerako
»

ASTE HONETAKO

zozketa



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



Donostiako Aquiriuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Esait

2 sudadera opari

Oiartzun GIPUZKOA

www.esait.org

3



Gaizka Peñafiel

Lagunartean

5 CD opari

www.baga-biga.com

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2308. Argia)

TXONDORRA erretegia

- Arantzazu Beitia Bengoa (Gasteiz)

ANTTON gorantz erori... CDa

- Jose Antonio Azpiroz Noain (Leitza)
- Karmele Alvarez Arbe (Donostia)
- Ana M. Zubiarremerteria (Eibar)
- Elixabete Perez Gaztelu (Oiartzun)
- Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)

MUNDUKO IPUINAK

- Agustin Egaña Heras (Bilbo)
- Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

11 ITZULPEN 2012ko agenda

- Arantxa Aizpurua Arruti (Zarautz)
- Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)
- Alfontso Vila Garzia (Santurtzi)
- Arantza Egibar Arieta-araunabeña (Bergara)
- Matxintxu Aek Euskaltegia (Bilbo)
- Aratz Erretegia (Donostia)
- Gotzon Garitaonaindia Euskaltegia (Bermeo)
- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)
- Bernardo Azpillaga Ariztimuño (Erreñil)
- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)

ARTEZ euskara zerbitzua 2012ko politiko agenda

- Alberto Etxeberria Arrese (Oñati)
- Belen Irastorza Armendariz (Zaldibia)
- Leitza Liburutegi Publikoa (Leitza)
- M. Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
- Jose Antonio Elorza Aranberri (Zarautz)
- Jaione Goienola Guarrotxena (Galdakao)
- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar)
- Joxe Aizpurua Iruin (Hernani)
- Irati Lujua Etxenike (Etxalar)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • guinea@argia.com

www.argia.com/gunea



euskal kulturaren

URTEKARIA



Euskal kulturaren urtekaria

2011-2012



- Euskal kultur arloko joeren aurrerapena
- Urteko hamar pertsona garrantzitsuenak
- Azken hilabeteetako adierazpenik esanguratsuenak
- Kulturaren esparru bakoitzean jazotakoak, sailez sail
- Datu eta estatistika interesgarriak
- Bukaeran, gida praktikoa, kultur jardueretako pertsona eta taldeekin harremanetan jartzeko kontaktu bideekin

ESKURA EZAZU
943 37 15 45
argia.com/denda
denda@argia.com

